

DATORRENA

Botereari xuxurlatzen
diotenenganako lilura **IÑAKI SOTO > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Makroepaketaren aroari justizia
poetiko, politikoa **RAMON SOLA > 11**

2019ko irailaren 14a | XIII. urtea • 637. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HAYAR RAISSOUNI, MAROKOK EPAITUA ETA HERRITARREK BABESTUA > 8

Fadel ASENNA | AFP



Emakumeen eskubideen aldeko borroka Palestina askatzeko borrokaren barruan 04

Abortatzeagatik eta ezkondu gabe harremanak izateagatik epaitua Marokon 08

Urkatzeek, garroteak, torturak edota dueluek Bilboz kontatzen dutena 12

Lupulu usaineko uda amaierak 18

Elkarriketa: Pablo Otxoa de Olza 22

«Oversharing», haurtxoen esposizioa sare sozialetan 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Botereari xuxurlatzen diotenenganako lilura
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Hiriak salbuespen egoeran
- 11 **Ramon Sola:** Makroepaiketen aroari justizia poetikoa, politikoa
- 16 **Oihane Larretxea:** Aldaketak
- 16 **Koldo Sagasti:** Dooh Nibor
- 17 **EXPRAI**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Ikasturtea
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Irri-arrako bat
- 30 **Amaia Urrejola:** Sexuarekiko jendartearen jarrerak



{ datorrena } Iñaki Soto

Botereari xuxurlatzen diotenenganako lilura

Madril eta Londres artean mugitzen den gaurkotasun politikoak iradoki zidan lotura. Alde batetik, Pedro Sanchezen erabakietan eragin nabarmena duen aholkularia dago, Ivan Redondo donostiarra. Misteriotsua da, itzalean lanean dabil. Beste alde batetik, Boris Johnsonen *spin doctor* delakoa dago, Dominic Cummings. Animaliekin gertatzen ohi den bezala, bere ugazabaren geroz eta antza handiagoa du; xelebrea da, deigarria, lotsagabea.

Steve Bannon ere asko aipatzen da. Garai batean Tony Blairren aholkulari zenak, Alastair Campbell gorrotagarriak, eragiten zuen lilura gogora ekarri didate. Gaur egun gauzak beti lehendabizikoz gertatzen direla pentsatzen dugun arren, sarri fartsa gisa ematen den erreplikapenaren aurrean gaude, besterik ez.

Jakina, espainiar Estatua-ren eta Britainia Handiaren egoera politikoak zeharo desberdinak dira uneotan. Edonola ere, krisi politiko eta instituzional betean dau-de biak. Horrexegatik, agintearen atzean horrelako bi pertsonaia aldi berean ego-tea harrigarria da.

Esan bezala, berria ez den baina indarra hartzen ari den joera orokor baten aurrean gaude. Aholkulari politiko-koen eragina handitzen ari da, erakunde-koen gainetik, egituren gainetik. Logikoa ere bada, egotismoa hain indartsua den eta hain hedatua dagoen garaiotan. Kontalaria kontakizunaren parte zentrala bihurtu da. Globalizazioaren eraginez, erreferentziak ere komunak dira. Bai klasikoak –Sun Tsu, adibidez–, baita katodikoak ere –“The West Wing” fantasia guztien iturri gisa, parodiarraino–.

LOTURA NABARMENAK

Toni Aira aditu katalanak lotura berdina egin du. Bere web orrialdean aholkulariei buruzko artikuluen saila egiten hasi da eta abiatzeko bi hauek hautatu ditu

[www.toniaira.cat]. Airak honetaz zerbait badaki, bera konbergenteen *spin doctor* delakoa izan baita.

Pertsonez harago, pertsonaia gisa, famatu hauek lilura eragiten dute. Beren kontakizuna sinistuko badugu, boteretsuengan eragin zuzena dute. Belarrira ideiak, erabakiak, adeitasunak eta etsaitasunak xuxurlatzen dizkiete. Ingurukoen zoriaren arduradun dira. Alderdien edo herrien patuaren arduradun gisa azaltzen dira. Misterioa saltzen dute, eta, gainera, garesti saltzen dute.

Hein handi batean, Cummings eta Redondoren karguak baliokideak dira. Biak kabinete buru dira, zuzenean izendatutakoak, hauteskunderen gainetik, are eta alderdien gainetik ere. Ildo horretan, bien boterearen izaera antzekoa da: legitimitate demokratikorik gabea eta, aldi berean, meritokraziaren ikuspuntutik zalantzazkoa.

Cummings eta Redondo ez dira Campbellen oso desberdinak. Gauzak lehen aldiz gertatzen direla pentsatzen dugun arren, sarri fartsa gisa ematen den erreplikapenaren aurrean gaude, besterik ez

Bien arteko aldeei begiratuta, Redondo mertzenarioa- goa dela esango nuke. Cummings ingeles kontserbadore klasista bat da. Redondok, ordea, berdin lan egiten du PPrentzat edo PSOerentzat. Horrek badu beste irakurke- ta bat, guretzat ezaguna dena. Ideologiaren gainetik, nola- bait esateko, Redondo espainiarra izatea. Horrek hautes- kunderen osteko jokabidea ulertzen lagunduko luke.

Lehen Campbell aipatu dut. Iragan maiatzean Alder- di Laboristak bota egin zuen, protesta gisa liberal demo- kratei boza eman ziela aitortu zuelako. Harro, Corbyn li- derra den bitartean alderdira ez dela itzuliko esan zuen. Azken batean, guztiek dute zerbait amankomu- nean: balioen ikuspuntutik, jendilajea dira. •

ASKAPENAKO BRIGADAK (II)

Emakumeen eskubideen aldeko borroka Palestina askatzeko borrokaren barruan

Aurreko urteetan bezala, aurreten ere Palestinara joandako Askapenaren brigadak ikuspuntu feminista hartu du bertako errealitatea ezagutzeko, batez ere emakumeen antolakuntza okupazioaren aurrean. Eta, egiaztatu ahal izan dutenez, okupazio sionistak forma ezberdinak hartzen ditu Gazan, Zisjordanian eta 1948an okupatutako lurraldeetan.

Hasteko Aida kanpamendua bisitatu zuten, Betleemen 1948an sortua. Egun, apartheidaren harresiak inguratzen du. «Oinarritzko beharrak asetzeko eskasiak, urarena tarteetan, mugimendu askatasun ezak eta egunerokotasunean ematen diren konfrontazioak ezaugarritzen dute kanpamendua», azaldu dute brigadistek helarazi diguten kronikan.

Emakumeak, umeentzako hezkuntza politikorako espa-

PALESTINA / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Askapenak Palestinara bidalitako brigada feministak gertu-gertutik ezagutu du okupazio sionistari aurre egiteko emakumeen antolakuntza. Baita emakume palestinarren kontrako Israelen jazarpenaren ezaugarriak ere. Gainera, nazio zapalkuntzaren kontrako borrokarekin batera, askotan etxetik hasi behar dute borrokatzen.

zio kultural propio baten beharraz jabetuta, Amal Almus-takbal zentroa sortu zuten Aidan. «Bertako egoera politiko eta sozioekonomiko gogorren ondorioz, antolakuntza, borroka eta erresistentzia gu-ne indartsua da. Zentroko emakume baten ahotik jaso ditugu borrokaren gazi-gozoen berri», azaldu dute.

Erresistentzia armatuan emakumeek jokatzeko ezinbesteko rola –soldadu israela-

rraren sarekaden berri emanez, adibidez–, esparru publikora hedatu zen, eta, gutxikagutxika, bi esparruak uztartzen hasi ziren. «Hezkuntza, osasun eta aisialdi arloetan antolatzen hasi ziren emakumeak oinarritzko beharrianak asetzeko», hau da, burujabetza faltak eragindako arazo nagusiei aurre egiteko.

Betleemetik gertu kokatuta-ko Beite Sahour herriko Emakume Arabiarren Batasuna el-

karte aitzindariak helburu bera du. Baita 200 herritako emakumezkoen ahalduntze politikoan, saretzean eta antolakuntzan lan egiten duen Emakume Palestinarren Batzordeen Batasunak (UPWC) ere. Lan horren adibide da Hebron, «gatazkaren muinean» den herria. Bertakoek bereziki jasaten dute kolono eta militarren jazarpena. «Eguneroko biolentziari aurre egitea estrategikotzat du UPWCk –azaldu dute brigadistek–. Horretarako, emakume taldeak dituzte ikasleak eta langileak ahalduntzeko. Haurrek bizi dute amorru, ezintasun eta tentsioa bideratzeko aisialdi ekintzak aurrera eramaten dituzte, eta nazio askapenerako prozesuan eragiten dute emakumeen eskubideen aldeko mugimenduan parte hartuz».

BIZIRAUPENA ETA BURUJABETZA

«Konplexua bilakatzen da egoera emakumeek, beren eskubi-

FAKZIOEN BATASUNA, PALESTINARREN XEDEA LIBANOKO KANPAMENDUETAN

Askapenako bi brigada Palestinan izan badira bertako borrokak ezagutzen, beste batek beren herritik ihes egin behar izan zuten palestinarren errealitatea ezagutu du Libanoko errefuxiatu kanpamenduetan.

Brigadisten lehen geldialdia duela 36 urte jasandako sarraskiagatik ezaguna den Beiruteko Shatila kanpamendua izan zen. «Beste mundu bateko errealitatea» bezala definitu dute brigadistek aurkitutakoa. «Kablez jositako adreiluzko hiria da, kale bizitza kaotikoa duena». Espazio faltagatik Shatilako biztanleek etxeak gorantz eraikitzen behartuta daude. Ondorioz, «eguzki izpiak nekez heltzen dira txoko askotara». Bizi

baldintza oso gogorak aurkitu dituzte. Argindarra joatea ohikoa da eta errefuxiatuek etxerako ura itsasotik hartzen dute. Edateko ura lortzeko botilak erosi behar dituzte, kaleak plastiko hondakinez josiz.

13.000 errefuxiatu erroldatuta daude Beiruteko kanpamenduan, baina 35.000 lagun bizi dira bertan Palestina Askatzeko Herri Frontearen arabera, eta ez bakarrik palestinarren. «Ideia bat egiteko, bi kilometro karratu eskasetan 40.000 eta 45.000 pertsona artean bizi dira», azaldu dute Askapeneko kideek.

Kanpamenduan ezagutu dituzten pertsonen artean, 1982ko sarraskia bizi izan zuten lagun ugari daude. Baita Kuban ikasteko aukera eduki



Beheko irudian, Libanon egondako brigadistak Saidako kanpamenduan, Palestina Askatzeko Herri Fronteko ordezkariekin. ASKAPENA

deen jabe izanda, nazio zapal-kuntzaren aurka antolatu beharra dutenean», onartu dute brigadistek ikusi eta bizi izandakoa oinarri. Izan ere, Palestinan, «antolakuntza politikoan lekua egiteko borrokatu beharrak, norberetik hasi eta etxe barruan ere borrokatzea esan nahi du».

Halaber, «Israelek, emakume palestinarren esangura politikoaren jakitun, bere aurka ofentsiba abiatu du, haren gorputza erabili eta guda armatzat hartuz borrokaren eta elkartasunaren zutabea eraisteko helburuarekin».

KARTZELAK

Egun, 5.250 palestinar daude kartzelan, tartean dira Israelgo Damon espetxean dauden 44 emakumezkoak. Brigadistek ezagutu dituztenetako asko ere preso izandakoak dira. «Israelen apartheid kolonialistaren areagotzea ezinezkoa litza-teke irismen handiko zigor

sistema bat izan gabe. Hemen inor ez dago salbu, sare sozialan palestinar kausarekin bat egite hutsak kondena zaitzake», azaldu dute. «Maiz, ilegalak diren atxiloteta administratiboak ematen dira.

Askapenako brigadistak, ordezkarri palestinarrei egindako bisita batean.
ASKAPENA

Atxilotetok epaiketa gabeko itxialdiak dira, eta, inolako frogarik gabe, hainbat egunez, hilabetez edo urtez luza daiteke espetxeratzea.

Jerusalemen, legedi zibila aplikatzen da, eta, ondorioz, ez

dira atxiloteta administratiboak izaten. Aldiz, etxeko atxilotetak gertatzen dira, batez ere gazteen kasuan, eta horrek eragin handia du emakume palestinarrengan. «Errepresio forma horrek etxetik ateratze-



zuten emakume eta gizon asko ere. «Kubatar herriak eman dien elkartasuna etengabe azpimarratzen dute», nabarmendu dute.

Lan eza arazo larria da kanpamenduan. Izan ere, Libanon errefuxiatuek «ez dute lan egiteko eskubiderik 72 lanpostutan. Askok ez dute baliabide ekonomikorik euren bizitza duintasunez gauzatzeko». Gainera, egoera okertzen ari da. Brigada Libanon zela, Lan ministroak «sua hauspotu» zuen errefuxiatuek lan egiteko «baimen berezi bat» beharko zutela esanez. Ondorioz, erabaki horren kontrako protestak izan ziren palestinarren artean. Izan ere, errefuxiatu estatusari uko egitera behartu nahi dituzte Libanon lan egin ahal izateko, ohiko migranteak balira bezala. Palestinar errefuxiatuei Nazio Batuen Erakundeak eskaintzen dizkien laguntzei uko egitea ere

exijitu nahi diete lan egin ahal izateko. Brigadistek diotenez, erabakia «ez da Libanoko Gobernuak berak hartutakoa, baizik eta AEBek eta Frantziak Israel babesteko eta palestinarrek presionatzeko hartutakoa. Horren truke Libanoko Gobernuari laguntza ekonomikoa eta zorra gutxitzea eskaini diote».

Askapenako brigadistek, Siriako gerratik ihes egindako palestinar errefuxiatuek Shatilan bizi dituzten zailtasunak ere ezagutu dituzte. «Yarmoukeko kanpamendutik etorritako familiek bertan zuten bizi maila zinez duina galdu dute. Sirian eskubide guztiak zituzten boz eskubidea izan ezik, Shatilan, ordea, lan eskubide gabe aurkitu dira eta euren bizi baldintzek behera egin dute modu izugarrian», azaldu dute. Gogoratu behar denez, Damaskotik gertu kokatutako Yarmoukeko

palestinar errefuxiatuen kanpamendua erabat suntsituta geratu zen Siriako gerrako borroketan.

Libanoko errefuxiatu palestinarren artean egoera politikoaren ganean dauden ikuspuntu ezberdinak ere ezagutu dituzte brigadistek. «1948ko okupazioaren aurreko agertokira itzuli eta Israeli inongo zilegitasunik ez eman» edo «1967ko mugak hartuz bi estatuen arteko elkarbizitza» dira aukerak. Askok diotenez, gaur egun erakunde eta fronte ezberdinek «ez dute indarririk Palestina okupatu osoa askatzeko», nahiz eta estrategia amankomuna izan. Beste batzuek, berriz, Palestinara itzultzeko eskubidea onartzen ez zaila ikusita, nonahi mugak itxita dituztela frogatuta, «fronte eta erakunde guztien batasuna bilatu eta dituzten baliabide guztiekin borrokara batzeko ahaleginean jarraitzen dute».

ko baimena ukatzen die kalte-tuei. Emakumeek bereziki sufritzen dute sistema hori. Semeak zigorra apurtu eta ondorio okerragoak jasango dituen beldur, ama presoekin bihurtzera behartuta sentitzen da, etxean biolentzia egoera larriak sortzen direlarik», azaldu dute brigadistek.

Espetxeetan dauden emakumezkoen kasuan, «bizi baldintza onartezinak» pairatzen dituzte. Kultura arabiarrean bereziki iraingarriak diren egoerak bizitzera behartzen dituzte egunero-egunero. «Beharrezkoak diren mediku kontrolak eskasak dira, eta, daudenean, presoak biluzik egon behar da. Israelgo kartzela sistemaren aurpegi makabroena erditzeetan jasaten dute emakume presoek, azken unera arte ez baitute laguntzarik jasotzen. Bestalde, egunean lau ordu bakarrik ematen dituzte ziegatik kanpo, duxak partekatu behar izaten dituzte... Az-

ken hori kultura arabiarrean bereziki iraingarria da, beste emakumeen aurrean biluzik agertzea pribatutasunaren aurkako eraso larritzat baitute», azaldu dute brigadistek.

GORPUTZA, TORTURA ERREMINTA

«Emakumearen gorputza tortura erreminta gisa erabiltzen dute israeldarrek. Hasiera-hasieratik, galdeketetan, sexu irainak ohikoak dira, emakumezkoen irmotasuna apurtzea helburu. Bortxaketa mehatxuen, senideen aurrean biluzteraz behartzearen, soldaduen jarrera desegokien eta bestelako eraso ugariren testigantzak ere entzun ditugu», gaineratu dute brigadistek.

Eta jazarpenak epaitegietaraino bertaraino jarraitzen du. «Epailearengana joan aurretik eta bueltatzean beharrezkoak diren miaketak baino gehiago sufritzen dituzte emakumeek. Horrek akusatuak epaiketa prozesua ekidin nahi izatea

«Konplexua bilakatzen da egoera emakumeek, beren eskubideen jabe izanda, nazio zapalkuntzaren aurka antolatu beharra dutenean», onartu dute brigadistek

Etxeko atxiloketetan, «semeak zigorra apurtu eta ondorio okerragoak jasango dituen beldur, ama presoekin bihurtzera behartuta sentitzen da, eta biolentzia egoera larriak sortzen dira»

sorrarazten du, eta, askotan, bere aurkako probarik ez dagoela jakinagatik, adostutako kondena bat onartzen du», azaldu dute.

Hala ere, kartzeletako hormen barruan, garaipen handiak ere izan dituzte emakume palestinarrek. «Horren adibide dira Khalida Jarrar preso ohiak ematen zituen eskolak. Espetxealdia politizazio prozesu bilakatzea lortu zuen. Nahiz eta Israelek presoek hezkuntzarako oztopoak jarri, Khalidak espetxealdia politizazio prozesu bilakatzea lortu zuen, legedi eta historia klaseak antolatuz, baita presoek batxilergo ikasketekin jarraitzea ahalbidetuz ere», adierazi dute brigadistek.

Brigadistek bertatik bertara frogatu zuten palestinarrek borrokan jarraitzeko duten tinkotasuna.
ASKAPENA



Brigadistek Euskal Herriaren inguruko hitzaldi bat emateko aukera ere izan zuten, Badawira kanpamendura joan baino lehen. Tripolin kokatu dago Badawi eta «herri baten antza» du. «Kaleak zabalagoak dira, eta, etxeak, eskolak, bizi baldintzak oro har, Shatilan baino askoz hobeak». Bertan, «Palestina Askatzeko Herri Frontearen presentzia sendoa nabari da. Bertako kideek dute kanpamenduaren kontrola». Hain zuzen ere, fronte horretako kideekin izan zituzten harreman gehienak euskal brigadistek.

«Palestina Askatzeko Herri Fronteko ordezkariak argi utzi digute epe ertainean aldaketa positiboak emango direla, erabat baikorrak dira hamarkada honetan izango dituzten erronkei erantzuteko duten gaitasunaz. Epe hurbilean Europan beren mezua barreiatzeko erronka



dute», azaldu dute brigadistek. Hurrengo hilabeteetan Europako hainbat hiritan palestinar egoeraren berri emateko asmoa dute Palestina Askatzeko Herri Fronteko kideek eta, koadro politikoen formakuntzan nabaritu dituzten gabeziak kontuan hartuta, Europako alderdi ezkertiarretatik ikasteko asmoa ere badute. Barnera begira, ume eta gazteekin egin beharreko lana giltzarritzat dute, eta eskolan zein aisialdian kontzientziazioa zabaltzeko beharra aipatu dute.

Bestalde, Askapenako brigadistek egiaztatu dutenez, palestinar erakundeak beste arazo bati ere aurre egin beharrean dira: kanpamenduetan hedatutako droga trafikoa. «Ezin dezakegu ahaztu, Euskal Herrian frogatu zen bezala, droga trafikoa dela kontrainsurgentzia neurri errazenetarikoa. Palestinar

kanpamenduak ez dira salbuespena zoritxarrez», onartu dute euskal internazionalistek. «Libanoar autoritateek drogen kontsumoa onartu eta maiz bultzatu ere egin duten bitartean, palestinar alderdiek, bereziki Palestina Askatzeko Herri Fronteak, droga trafikoa gelditzeko jarrera irmoak hartu dituzte».

Izandako elkarrizketetan, Palestina Askatzeko Erakundeko buruzagiekiko mesfidantza ere nabaritu zuten. Baita atzeritik heldutako elkartasun keinuekiko esker ona ere. «Alor ekonomiko, politiko, akademiko eta kulturalean bultzatutako boikot kanpainak, urteroko brigadak... asko eskertzen dituzte. Ohartu gara horrelako kanpaina eta ekintzek, eragin politiko zuzena izateaz gain, garrantzi sinbolikoa ere badutela, hemen jendeak elkartasun keinu txikiena ere zintzotasunez eta bihotz-

«Lorpen horren garrantzia, gainera, Khalida Jarrarrek indarrean jarritakoa oraindik ere bizirik den mekanismoa dela da. Kartzela liburuz eta baliabidez hornitu zuen, preso-en arteko laguntza antolatu. Bada, jositako sareak erresistentziak kartzela barruan bizirik dirauela frogatzen du», azpimarratu dute.

EMAKUMEEN AHOTSAK

Azkenik, Askapenako brigadak hainbat emakumeren ahotsak ere jaso ditu bere kronikan, «honetaz eta hartaz hausnartu, pentsatu, galdetu, eztabaiatu eta entzun dugunetik jasoa. Haien hitz eta bizipenek gudan izan duten oihartzunari hauspoa emateko beharretik ateratako saiakera da hau, elkartasun haizeak zabal dezala».

Elkarrizketetan eta diskurtsoetan, jarraian bildutakoak bezalako hitzak jaso zituzten Amal Almustakbal zentroan:

–«III. Nakban gaude». Palestinako Emakumeen Batasuneko kide den Muyassar Atyanik egindako baieztapena da, gaur egun palestinarrek bizi duten egoera katastrofikoaren harira egindakoa.

–«Ondoan dugun kolonia minbiziaren parekoa da». Nablus kanpoaldean kokatutako Alsira herriko emakume nekazari baten adierazpenak dira. Herri horrek 1982tik Yetshar kolonia judutarra du ondoan.

–«Israel oso ona da marketin kanpainak egiten. Gure kulturaren aurkako diskurtsoa erabiltzen du bere izatea legitimatzeko». Khitam Saafin.

–«Ezin daiteke askatasun nazionalaz hitz egin emakumeen askatasunik gabe». Khalida Jarrar.

–«Palestinar herria oso zatituta dago. Horretan okupazioak irabazi egin du». Reem Natsheh.

–«III. Intifada globala izango da». Abdallah A Shararah.

bihotzez eskertzen baitu. Sionismo kriminalaren kontrako borrokan bakarrik ez daudela ikusten dute».

Saidatik Ayn al Hilweh izeneko kanpamendura abiatu zen Libanon izandako Askapenako brigada. Libanoko hegoaldean kokatuta dago, eta brigadistek berehala antzeman zuten aurrekoen oso ezberdina zela. Izan ere, armen presentzia askoz handiagoa da eta kontrol zorrotzak ikusi zituzten bertara iristean. 80.000 pertsona bizi dira bertan eta Libanoko kanpamendurik handiena da. «Hain handia izanik, kanpamenduan ematen diren botere harremanak are handiagoak dira. Harremanok, gainera, eragin handia izan dezakete gainontzeko kanpamenduetan ere».

Islamista salafisten presentzia handiagoa dela nabaritu zuten bertan. Kanpamendua 2000. urtera arte Israelen kontrolpean egon zelako dela

horrela azaldu dute brigadistek. Tentsio egoera larrien lekuko ere izan ziren Askapenako kideak Libanoko Gobernuak errefuxiatuen lan egiteko eskubidea murrizteko hartutako neurrien aurka egindako manifestazioan. «Manifestazioa amaitzeaz zela heriotza bat izan zen kanpamenduko kontrolagatik borrokan diren Al-Fatah alderdiaren eta talde islamista baten arteko borroketan. Libanoko Gobernuari lotutako sektoreek hilketok bultzatzen dituztela aipatu digute etengabe, hain kostata eskuratutako palestinar fronteen batasuna hausteko xedearekin». Izan ere, «ikusi dugu nola frakzio ezberdinak batu egin diren, batasuna mantentzeko estrategia gako dela ikusten baitute. Gertaera isolatuek ezin dutela hori apurtu eta benetako etsaia Israel entitate sionista dela argi dute».

RAISSOUNIRI BABESA

Abortatzeagatik eta ezkondu gabe harremanak izateagatik epaitzen ari dira

Astehenean hasi zen Hayar Raissouni kazetari marokoarraren aurkako epaiketa. Bi delitu egozten dizkio: legez kanpoko abortua eta ezkondu gabe sexu harremanak izatea.

Raissounik 28 urte ditu eta “Ajbar al Yaum” egunkari independenterako lan egiten du. Abuztuaren 31n atxilotu zuten, Amin Refat bikotekidearekin batera, Rabaten, klinikatik ateratzen ari zirela. Sendagile bat eta bertze bi langile ere hartu zituzten gatibu, abortua egiteagatik. Ehunka lagun epaitegiaren aitzinean bildu ziren astehenean, akusatuei elkartasuna adierazteko.

PRIBATUTASUNA, URRATUTA

“Askatasuna Hajarrentzat”, “Gure jendartea arriskuan dago”, oihukatu zuten bildutako manifestariek. “Nire gorputza nire askatasuna da”, “Ez helduen arteko sexu harreman adostuen kriminalizazioari”, irakurtzen ahal zen eusten zituzten pankartetan.

«Hayar Raissouniren eta bertze lau pertsonaren atxiloteta erabat bidegabea da. Beren pribatutasunaren kontrako eraso amorragarria da», adierazi zion Europa Press berri agentziari Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeko Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko zuzendariak, Heba Morayefek.

Irailaren 2an Fiskaltzaren aitzinean aurkeztu zuten kazetaria, ezkondu gabe harremanak izateaz eta «abortu bat

 **JENDARTEA** Maider Iantzi Goienetxe

Hayar Raissouni kazetari marokoarra abuztuaren 31n atxilotu zuten, Amin Refat bikotekidearekin batera, Rabaten, klinikatik ateratzen ari zirela. Sendagile bat eta bertze bi langile ere hartu zituzten gatibu, abortua egiteagatik. Ehunka lagun epaitegiaren aitzinean bildu ziren astehenean, akusatuei elkartasuna adierazteko.



egiten uzteaz» akusatuta. Lehendabizikoa urtebeteko kartzelarekin zigortzen den delitua da, eta, bigarrenak, sei hilabete eta bi urte arteko espetxealdia ekar dezake.

SENARRAREN BAIETZA BEHAR

Raissouni bezala, Refat haren mutil-laguna ere preso dago, delitu berengatik. Irailaren 14an ziren biak ezkontzekoak. Medikua eta klinikako bertze bi langileak ere atxilotuta daude. Sendagilea, gainera, erregularki abortu zerbitzua emateaz akusatzen dute eta hamar urte arteko zigorra jaso dezake. Marokon, ama arriskuan dagoenean soilik onartzen da abortua, beti senarra ados badago.

Abortuekin lotuta medikuak atxilotu izan dituzte, baina gutxitan pazienteak, Human Right Watch (HRW) erakundeak jakinarazi zuenez. 2018an, Marokoko justiziak 14.503 pertsona akusatu zituen libertinajeagatik, 3.048 adulterioagatik, 170 homosexualitateagatik eta 73 abortuagatik, datu ofizialen arabera. Egutero 600-800 abortu klandestino egiten dira herrialdean, elkarteen kalkulu arabera.

Rabateko Fiskaltzak joan den irailaren 5ean jakinarazi zituen froga mediko-perizialak. Abortuengatik klinika zelatatzen ari zirela azaldu zuen.

IDATZI POLITIKOEZ GALDEZKA

Kazetariak bi delituak ukatu zituen eta, irailaren 4an lan egiten duen egunkarian kale-ratutako gutun batean agertu zuenez, bere ideia eta idatzi politikoei buruz galdetu zioten poliziek. Raissounik Ahmed Zefzafirekin izandako elkarrizketa sail bat argitaratu zuen maiatzean “Ajbar al Yaum” hedabidean. Naser Zef-

zafi Hirak Rifeko protesta mugimenduko liderraren aita da Ahmed. Bere familiari buruz ere egin zizkioten galderak Hajarri polizia-etxean, Ahmed Raissouni bere osabari buruzkoak besteak beste. Teologo ezaguna da osaba, Marokoko mugimendu islamiar handienetako baten presidente ohia.

Agintariekin kritikoak diren artikulatuak ere plazaratu izan ditu kazetariak eta lan egiten duen egunkariko zuzendaria, Taufik Buacrin, hamabi urteko kartzela zigorrera kondenatu zuten 2018ko azaroan delitu politikoak egotzita.

GENERO DISKRIMINAZIOA

Saad Sehli emakumearen abokatuak argudiatu zuenez, akusazioa «absurdoa eta faltsua» da. Azaldu zuenez, barneko odol-jario bat tratatzen ari zitzazkion medikuak. Abokatuak, sendagileen frogen laguntzaz, berezko abortua izan zitekeela erakusten saiatuko da. «Medikuen esku-hartze bat da eta medikuen txosten bat daukagu eragindako aborturik ez dagoela dioena. Berezko abortu bat izan daiteke eta hori ez da delitua. Hajar Raissouni askatzeko eskatuko dut».

Amnesty Internationalek oroitarazi zuen Nazioarteko Zuzenbidean jasota dagoela emakumeen autonomiarako eskubidea (gorputzaren autonomia eta autonomia pertsonala), bere bizitza sexualaren eta ugaltzearen aukera librea barne. «Emakumeek bakarrik behar dituzten osasun zerbitzuak kriminalizatzea, abortua kasu, genero diskriminazioa da», baieztatu zuen.

ASKE UZTEKO ESKAERA

Amnesty Internationalek berehala eta kargurik gabe aske uzteko eskatu zuen. «Kasu honek



Hajar Raissouni kazetariari eta epaitzen ari diren bertze lau lagunei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea, astelehen honetan Rabateko epaitegiaren aitzinean.
Fadel SENNA / AFP

ezkontzatik kanpoko sexua eta abortua kriminalizatzen dituzten Marokoko legeak indargabetzea zein presazkoa den argi uzten du. Arauok emakumeen zenbait eskubide zapaltzen dituzte, hala nola, autonomiarako eskubidea, diskriminatuak ez izatekoa, pribatutasunarena eta osasunarena», argudiatu zuen Amnesty Internationaleko Heba Morayefek.

«Hajar Raissouniri beldurra eragin beharrean, delitu bidegabeak leporatuz, agintariekin li-

bre utzi beharko lukete, berehala eta baldintzarik gabe, eta bere eta kasuan inplikaturako bertze lagunen aurkako kargu denak kendu», erantsi zuen gobernu kanpoko erakundeak.

KAZETARIEN AURKAKO JAZARPENA

Infobae hedabideak jaso zuenez, giza eskubideen aldeko elkartearen eta kazetarien iritziz, Raissouniren atxiloketa ahots kritikoak isilarazteko saiakera tamalgarria da. Yabiladi.com atariko zuzendariak, Moham-

med Ezzouakek, hala azaldu zuen testuingurua: «Kazetariak inplikatu dituzten kasu pila bat egon dira, akusatu eta batzuetan kondenatu ere egin dituzte, baina ez prentsaren kodearen arabera, baizik eta kode penalaren arabera moral eta ohitura onak urratzeagatik. Kasu batzuetan terrorismoa goratzeagatik ere kondenatu dituzte».

«Hajar Raissouniren kasua kazetari eta hedabideen kontrako jazarpen, amorrazio eta tentsioaren enegarren erakusgarria da», baieztatu zuen.

Baina ez hori bakarrik. Ezzouaken ustez, emakumeen eskubideen aurkako eraso bortitza ere bada. «Emozioa handia izan zen, bereziki kazetari gaztearen injustizia eta umiliazioa bere azalean sentitu zuten emakume aunitzen artean». Horregatik, Hajarren kasuak jende gehiago mugitu du askatasunaren alde.

Rabateko Fiskaltzak joan den irailaren 5ean eman zuen froga mediko-perizialen berri. Abortuengatik klinika zelatatzen ari zirela aitortu zuen. Pribatutasuna urratzen du horrek

2018an, Marokoko justiziak 14.503 pertsona akusatu zituen libertinajeagatik, 3.048 adulterioagatik, 170 homosexualitateagatik eta 73 abortuagatik, datu ofizialen arabera

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Makroepaiketen aroari justizia poetikoa, politikoa

E rraz esaten da, baina 21 urte eta erdi joan dira jada bakailao enpresa hura, Gadusmar, ETArekin lotu eta lehenengo atxiloketak agindu zituztenetik. Gainera zetorrena garbiago ikusiko zen uztailean, “Egin” itxi eta “Egin” egiten zutenak giltzapetu zituztenean. Astelehen honetan Madrilen hasiko dena azken makroepaiketa politikoa izango dela dirudienean, oraindik ere erasoaldi horren benetako tamaina, bidegabekeria horren sakoneko neurria, antzematea eta ulertzea urruti dagoela esango nuke. Hasteko, 21 urte hauek ez direlako soilik makroepaiketen belaunalditzat hartu; belaunaldi bat baino gehiago, ugari, bete-betea jo du Estatuaren kanpaina juridiko-politiko-polizialak. Belaunaldia baino, makroepaiketena aroa izan da.

«Dena da ETA» honen abiapuntutzat 1998ko udaberri hura hartu ohi da, baina aurretik ere makroepaiketa politikoen bidea irekia zuten, 1997ko HBko Mahai Nazional osoaren aurkakoa kasu. Orduan ezinezkoa zirudien horrenbeste militante batera epaitzea, baina 2005ean 52 eseriko zituzten aulkian, 18/98koan, hama-sei hilabetez, 525 urteko espetxe zigorrak ezarri. Ordurako jada 33 gazte epaituak zituzten Jarrai-Haika-Segiren kontrakoan; 2013an, 40 izango ziren; 2014an, 28... Independentista gazteenak zein ibilbide luzekoak, berdin-berdin jopuntuan. Harrobi politikoa izan dira makroepaiketak, hainbaten gogoan bizi diren zenbait kideren hilobi ere bai.

Zerrenda osatzeko dago, bai, eta ez da lan makala izango: “Egunkaria”, Udalbiltza, herriko tabernak, Gestoras-Askatasuna, Batasuna-ANV-EHAK, Askapena, Bateragune, D3M... izen eta hizki-zopa galanta. Baita zenbaki dantza ederra ere: 18/98, 35/02, 8/13, oraingo 11/13 hau... 21 urtetan, Aznar, Zapatero, Rajoy eta Sanchez; Garzon, Del Olmo, Murillo eta zenbaki sekretu eta bionbo batean ezkutaturik behin eta berriro ziharduen

poliziakide-peritu berbera, aski ezaguna; Genova kalea, Casa de Campo, San Fernando... Soka etengabea, baina auzi guzti-guztien atzean, tresna berberak: gezurra, tortura, espetxea. Eta kalte bertsuak: atxiloketak, lapurretak, kartzelaldiak, fidantzak, kargugabetzeak...

Osatu beharko da historia, berrosatu zauriak (sendagarriak direnak behintzat), baina biziraupenetik ere badu aro honek. Kontu horiek guztiak batzerakoan argi ikusiko da erasoaldiaren dimentsio itzela eta harri-garriagoa erantzuna. GARA hau bera da adibide, ahaztua bada. Azken makroepaiketetan emandako akordioak eta zigorrak egokitzeko lege aldaketak ez ziren gertatuko herri harresirik altxatu izan ez balitz.

Azkena omen dator, bazen garaia. Eta azken hau beste guztiak baino adierazgarriagoa da, «dena da ETA»

ETA amaitzeko ari zirela zioten, baina ETArekin ondoren ere eutsi diote. Ederra litzateke, beraz, azken epaiketa honek konponbidea eta prozesua elikatzea

maltzur eta faltsua ETA ez dagoenean ere erabiliko baitute. ETA amaitzeko ari zirela zioten... baina independentismoa akabatzeko ari ziren benetan, eta horregatik amaieraraino eutsi diote azken zigor operazio honi, oraindik kalte batzuk gehiago eragiteko asmoz eta gerra zantzuak betikotzeko ilusioz.

Horregatik besterik ez bada ere, ederra litzateke astelehenen, auzipetuek gaur Bilbon aldarrikatuko duten bezala, makroepaiketa hau konponbideak indartzeko eta prozesu politikoa elikatzeko baliatzen bukatzea, ez gatazka eta sufrimenduarena luzatzeko. Orain sarritan esaten den bezala, justizia poetikoa izango litzateke hau guztia jasan duten ehunka lagunentzako. Eta justizia politikoa Euskal Herriarentzako. •

BILBOKO HISTORIA BELTZA

Urkatzeek, garroteak, torturak edota
dueluek Bizkaiaz kontatzen dutena

Kriminalitatea garai bakoi-
tzaren erreali-
tatearen aur-
pegietako bat
da. Luis Maria
Bernal (Bilbo, 1977) historian
doktorea Bilboko iragan bel-
tzaren uretan murgildu da,
dokumentu ofizialetan aurki-
tutako informazioaren iker-
ketan sakonduz. Horren
emaitza liburu batean jaso

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Delituek gizarte baten argazia marrazten dute. Gertakarien atzean pertsonak daude, bizimoduak, arazoak, tokiak, egoerak, pentsamoldeak... Luis Maria Bernal historialariak Bilboko historia beltza ikertu du eta iraganeko matxino, bidelapur, borrero, sorgin eta bilauen istorio errealak bildu ditu liburu batean.

**Irudian, Bilboko
itsasadarreko bi ertzak
lotzen dituen San
Antongo zubia, gaur
egun.**
Marisol RAMIREZ | FOKU

du, baina liburua ez da 1550
eta 1810 arteko Bilbo hartan
izandako prozesu judizialen
bilduma hutsa. Prozesu ho-
rietan oinarrituta, dokumen-
tuek utzitako protagonisten
testigantza zuzenak, gertaka-
riak eta egoerak josi ditu Bil-
boko historia beltzaren kon-
takizun interesgarria egiteko.
Gertatutakoa ezin da ulertu
testuingurua azaldu gabe, eta
horren deskribapena ere egin





du, azaltzeko ez bakarrik noiz eta nortzuk egin zituzten aztertutako delituak, baizik eta zergatik egin zituzten azaltzeko, egileek zer pentsatzen zuten ezagutzeko ere.

“Historia negra de Bilbao 1550-1810. Rebeldes, bandoleros, brujas, verdugos y otros villanos modernos” du izenburua Txertoa argitaletxeak liburu dendetara eraman duen Bernalen lanak. Izan ere, matxino, bidelapur, borrero, sorgin eta bilauak dituzte protagonista bildutako historiaren pasarteek.

Delituen ezaugarriak, zelan epaitzen ziren eta zer-nolako zigorrak ezartzen ziren ere jorratzen da liburuan. «Urte asko eman ditut indarkeria ikertzen, eta horregatik aukeratu nuen gaia, jendea nola bizi zen erakusten dizulako, prozesue-

tan beti agertzen delako zer egiten ari zen lekuko bat besteak eraso egin zionean, zergatik gertatu zen eraso hori, zein pentsamolde dagoen gertatutakoaren atzean, zerk eragiten

Lerroon gainean, Erriberako merkatua eta San Anton eliza, hau da, Luis Maria Bernalek ikertutako garaian Bilboko bihotza zen gunea.

Marisol RAMIREZ | FOKU

duen gatazka bat izatean norbaitek indarkeria erabiltzea...», azaldu dio egileak GAUR8ri.

Ikerketa bera gaur egungo kriminalitatearekin egingo bagenu, delituak, zigorrak... ez-

berdinak izango lirateke, baina azterketak gure bizimoduen «irudi argi bat» utziko luke, Bernalek azaldu duenez.

Aipatutako testuingurura itzulita, delituok epaitzen zituen justizia bera ere marrazten du liburuak. Ezberdintasunen gainean eraikitako gizarte batean, Bizkaian zegoen magistratu garrantzitsuena korrejidorea zen, eta, foruak horrela ezarrita, kanpokoa izan behar zen. Horregatik, Valladolideko kantzilertzan epaile izandako bat bidaltzen zuten. Hori bai, foruak berak trataera ezberdina aurreikusten zuen “benetako bizkaitarrentzako”.

BILBOKO BIHOTZA, ALDE ZAHARRA

Egin dezagun jauzi Bilboko iraganera eta imajina dezagun Alde Zaharrera mugatzen zen hirigune bat, itsasadarra, kaiaren inguruko jarduerak... «Garai hartan bereziki zigortzen ziren jabegoaren aurkako delituak, lapurreta txikiak beti egoten ziren, baina krisi garaietan erraz ikusten da jabegoaren aurkako delitu bortitzen igoera», dio Bernalek.

Gatazka belikoak izaten ziren garaietan, delituok nabarmen areagotzen ziren. Seguritasun eza nagusitzen zen bideetan eta justiziaren erantzuna jazarpena gogortzea izaten zen. «Garai belikoetan ematen ziren exekuzio gehienak», azaldu du.

EXEKUZIOAK, ERRIBERAN

Egungo Erriberako merkatua dagoen tokian izaten ziren exekuzioak. Alde Zaharrera mugatzen zen Bilboko hiriarren plaza publikoa orube hartan zegoen. Triangelu forma zuen, eta San Anton elizak eta udaletxe zaharrak mugatzen zuten gunea, Luis Maria Bernalek azaldu bezala.

INKISIZIOAK SINISTU EZ ZITUEN SALAKETAK

Inkiszio beldurgarriak ezin zuen hutsik egin Bilboko historia beltzean. Hala ere, deigarria da sorginkeriagatik salaketak egon baziren ere, denuntzieta asko ez zirela kontuan hartu ikertutako garaian. Sarri salatutako horren atzean herritarren arteko liskarrak zeudela ikusi eta bertan behera uzten zituzten prozesuak.

Luis Maria Bernal historialariak azaldu duenez, inkiszioak berezko bilakaera izan zuen, batik bat Zugarramurdi edota Durangaldean izandako prozesuen ondoren. Bilbon kasu aipagarriena familia batek emakume batzuen kontra egin zuen salaketarena da. Inkiszioak ez zuen proba


nahikorik ikusi, eta salaketa sineskeriek eta bestelako liskarrek bultzatuta zegoela ebatsi zuen. Horrek ez zuen salatzaileen zigor gogoa ase; gainera, ez ziren edonor, abizen entzutetsua zuten eta aurrean emakume pobreak zeuden. Hala, jazarpenak, bahiketa eta guzti, urte luzez jarraitu zuen. Prozesuaren dokumentazioa aztertuta, baina, zaila da salaketak emakumeoi zer estigma utzi zien jakitea. Bernalek dioenez, hori bai, hiri batera bakarrik eta lanik gabe heltzen ziren emakume gazteen kasuan, errazena zen prostitutak ziren usmoa zabaltzea, batez ere ostatuetan ibiltzen baziren.

Merkatua egiten zuten bertan, zezen plaza jartzen zuten jaietan, dantzaldiak ere bertan izaten ziren... baita heriotza zigorra aplikatzeko saioak ere. Azken horiek, gainera, liturgia berezi bat izaten zuten: delitugilea zigortzearekin batera, ikusleentzat abisua ere baziren. «Aztertutako hirurehun urteetan errituala ez zen beti berdina izan. Baina presoak kartzelan hartu, beltzez jantzi, beltzez jantzitako mando batera igo eta segizio bat egitea izan zen ohikoena. Presoak, aguazilek, apaizek eta epaia irakurtzen zuen pregoilariak hartzen zuten parte segizioan», kontatu du historialariak.

Segizioa hiriko kale nagusietatik igarotzen zen. «Helburua gizartean ahalik eta efektu handiena eragitea zen, hiribilduko herritar denek gertatu behar zenaren berri izan eta ikustera joan zitezen». Hala ere, exekuzioak ez ziren oso ohikoak Bilbon. «Delitu arruntengatik zortzi exekuzio kontatu ditut, eta lau egun berean izan ziren, lau bidelapurrenak». Hori bai, kontuan hartuta, garaian oso ekitaldi publiko gutxi izaten zirela eta exekuzioak oso deigarriak izaten zirela, «plaza guztiz beteta izatea» zen ohikoena.

NORTZUK ZIREN BIDELAPUR HAIK?

Exekutatutako bidelapurrak nortzuk ziren galdetuta, Bernalek erantzuten du ez dagoela garaiko gaizkileen profil zehatz bat ematerik. «Izan zitekeen lanpostu bat bilatzeko aukera gutxi zeukan gazte bat, krisian zen lanbide batean aritzen zen herritar bat, bizi zen inguruan lapurreta txikiak egiten zituen norbait... Garaian ez zen arraroa norbait bizitoki zuen zonaldetik irten gabe, klandestinitatean



Luis Maria Bernal, historian doktorea eta «Historia negra de Bilbao 1550-1810» liburuaren egilea. Jaizki FONTANEDA | FOKU

izan gabe, eraso bat egitea». Hilketarik gabeko delituak baziren, zigorra erbesteratzea izan zitekeen, edota zerbitzu militarra egitera behartzea. «Askotan, zigortutakoek ihes egiten zuten, klandestinitatean bizi ziren, eta, azkenean, bidelapur taldeetan sartzen ziren. Oro har marjinalitatean bizi ziren herritarrak ziren, bi-

Etxetik ihes egindako emakumeak, senarraren heriotzagatik epaitutakoak, Braulia de Sagarbinagaren heriotza... Indarkeriaren marrazketak izen propioak ditu

Bortxaketek, ezkutatutako haurdunaldiek eta erditze sekretuek berezko atalak dituzte liburuan. Kasuen gaineko datu soiletatik harago, jasotako testigantzak ere agertzen dira

de edo tabernetan bat egin eta taldeak osatzen zituztenak».

Deigarria da prozesuetan ez dagoela gaizkileen inguruko datu bibliografiko asko, orain dela 300 urteko epaiketetan agintariak ez baitziren horrelako kontuez arduratzen. «Egungo justizian defentsak horrelako kontuak aringarri bezala erabiltzen ditu, baina, orduan, prozesuak sinpleagoak ziren: defentsako abokatua egon bazegoen, baina gehiago zentratzen zen ‘nire bezeroak ez du hori egin’, ‘lekukoa oker dago’ edo ‘erosita dago’ bezalako argudioekin».

TORTURAK, SARATXO HERRIXKAN

Zer gertatzen zitzaion delitu bat egitea egotzita atxilotzen zutenari? Foruak, teorian

behintzat, torturak debekatzten zituen bizkaitarren kasuan. Izan ere, garai hartan, “benetako” bizkaitarrek (bizkaitarrak zirela frogatzen zuten agiriak zituztenak) estatus berezia zuten, agintarien artean desadostasunak zeuden arren. Eztabaida erabaki batekin itxi zen: tortura debekatu egin zen Bizkaian.

Hala ere, ikerketa metodoak oso garatuta ez zeuden garai batean, non gertakariak frogatzeko testigantzak eta auzipetuen aitortzak behar ziren, «agintariak ez zuten aitortpenak lortzeko tortura bezalako tresna bat bazterterik», Bernalek zehaztu bezala. Egoera horretan, Bizkaian tortura debekatuta zegoenez, presoak Arabara eramaten zi-

tuzten; Amurrio edo Urduñara lehenik, eta, bertatik, bi herriion artean kokatutako Saratxo herrixkara. Tortura saioak bertan izaten zirela jakina bada ere, non izaten ziren zehazterik ez dago egun.

«Nik aztertutako dokumentuetan, ez ditut tortura kasu asko aurkitu. Hiruzpalau prozesutan agertzen da tortura eta zortzi bat preso hitz egiten da», zehaztu du historialariak. Oinaze zaldia erabiltzen zen presoan aitortza lortzeko. «Ohol bati lotuta izaten zuten atxilotua eta torniketeekin estutzen ziren sokak erabiltzen zituzten gorputz-adarretatik tira egiteko, hezurak lokatu arte», aipatu du Bernalek. Zehazten duenez, tortura saioak 35 minutu ingurukoak izaten ziren eta, borrareroaz gain, epailea eta galde-erantzunak jasotzen zituen eskribau bat izaten ziren presente.

Torturatuaren erdiak inguru irteten ziren bizirik tormentutik. Batzuetan atxilotuek errudun zirela aitortzean bukatzen zen tortura saioa, eta, beste kasu batzuetan, oinaze zaldia ikustea nahikoa izaten zen atxilotuak delitu aitortzeko. Egia izan ala ez.

Behin, aitortzaren ostean, zigorrak askotarikoak izaten ziren. Kartzela ez zen aukera bat monarkiarentzat, kostu ekonomiko handia baitzeukan ezertarako baliagarriak ez ziren presoak bizirik mantentzeak. Horregatik, presoak baliagarriak ziren lekuetara bidaltzea zen ohikoena, eta armada izaten zen helmuga nagusia. «Gerra sasoietan infanteriara, arriskutsuenak ziren puntuetara, bidaltzen zituzten. Baita galeretara ere, oso baldintza gogorretan, ordu luzez arraun egitera. Berez, ia heriotza zigorraren parekoa



zen. Borroketan ez bazen, gaxorik hiltzen ziren».

Erbestea ere ohikoa zen delitu ez oso larrietan, baina garai hartan ez zegoen kontrol handirik, ez zegoen identifikazio

Bilboko Alde Zaharreko Erribera kaleko bistak, izen bereko merkatutik. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

agiririk... Hortaz, ez zen zaila zigorra bete baino lehen erbestetik itzultzea. Presondegiak ere bazeuden, batez ere Afrikan, Tetuanen, Melillan... Beste zigor batzuk gaizkileak Ferro-

leko armategietara edota Amadeneko merkurio meategietara bidaltzea zen. Azken finean, monarkiak leku arriskutsuetan doako langileak izateko baliatzen zituen zigorrak. Kuba, Filipinak, Puerto Rico... baziren zigorroak betetzeko helmuga, arriskua areagotu egiten zen, lanaz gain ohikoa baitzen gaixotzea.

OHORE ZAPALDUAREN IDEIA

Aztertutako garaian, hala ere, ez zen ohikoa gatazka edo delitu baten aurrean justiziara jotzea. Garaiko pentsamendua erekin bat, jasandako laido bategatik «ohorea berreskuratu» nahi zutenek, erantzun zuzena bilatzen zuten; ohikoena errieta egitea izaten zen, eta, kasuaren arabera, duelura ere hel zitekeen auzia, halere, ez ziren filmetan ikusitakoak bezain ikusgarriak. «Ohikoa izaten zen tabernan elkartu eta alkoholak animoak piztean, probokazioren bat izatea. Kalerara irteten ziren borroka egitera, hori bai, guztiek arma berak erabili behar zituzten», aipatu du Bernalek. Zelan amaitzen ziren borrokok? «Batek abantaila handia lortzean, lekukoek esku hartzen zuten bakea ipintzeko, eta, alde biek beren ohorea aldarrikatuta, auzia amaitutzat ematen zen».

«Prozesu zibilizatzailea» deitzen diote adituek mendeetan zehar eman den pentsamolde aldaketari. Bernalen esanetan, bilakaera handia eman da bai gizartean bai justizia sisteman. «Pentsamoldea aldatzen joaten da. Bizkaitar ona ez zen ohorea daga batekin defendatzen zuena, baizik eta auzokide on gisa jokatzeko zuena, gatazkak sortzen ez zituena, familia buru ona zena... Egungo iruditik gertuago dagoen pentsamoldea da».

Aldaketak

Oihane Larretxea

Bazuen bueltatzeko garaia. Lau urtaro errutinatik kanpo. Ordu-ra arte, bederatzi urtez, bere errutina izan zenetik kanpo. Udazkenaren ondoren heldu zen negua. Zuhaitzak agerian zuten eskeletoa eta lehenengo elur malutak erori ziren. Zain egon arren, ezustean, urteko azken egu-netan sortu zen bizitza berria. Ordu txi-kien iluntasunean bi begitxo ireki ziren, borobil-borobilak, ixil-ixilik. Ñimiñoak ziren, baina gau beltza argitu zuten.

Maitasun haren indarra ez zuen eza-gutzen. Bortitza. Basatia eta primitiboa. Konturatu zen betidanik maite zuela

izaki hura. Munduratu aurretik. Sortu aurretik. Zaurgarria. Hauskorra. Delika-tua. Leuna eta goxoa.

Klak. Errutinaren kontagailua gelditu. Dena izoztu eta ezberdin kontatzen ja-rri. Beste erritmo bat, beste bizimodu bat zabaldu zen istant hartan bere be-gien aurrean.

Zuhaitzen adaxkak hostotxoz janzten hasi ziren poliki-poliki. Konturatzerako udaberria ailegatu zen, Natura nagiak kentzen ari zen. Badoaz asteak, hilabete-ak, egun batek besteari lapurtzen dizkio orduak... ez korrikarik egin, ez izan han-ditzeko presarik!

Eta klak. Itsasoaren gatza itsatsi zaio azalean. Udara. Nola da posible? Sandia hozkailuan, sardinak parrilan. Hondarra etxeko lurrean, gaizki astindutako toa-llak. Urtero berdin. Begi ñimiñoak han-ditu dira, eta beltza zena gris urdina da, edo urdin grisa.

Etxeko sagarrondoak hasi dira saga-rrak askatzen. Urtaroa azkenetan da... egutegiak dio badela errutina zena be-rrartzeko garaia, errutina orain beste bat izan arren. Zein da egiazkoa, *biho-tzatxo*? Aldaketa batek besteari ematen dio paso, horrela josi ei da bizitza. Kons-tante bakarra zeu zara, nire Lucia. •

Dooh Nibor

Koldo Sagasti

Txikitan Robin Hooden istorioa kontatu zidaten eskolan. Kon-dairako heroi bihozbera Sher-woodeko basoko zirrikitueta ibiltzen zen klandestinitatean, behar baino gehiago zutenei lapurtzen, be-har baino gutxiago zeukatenen artean banatzeko. Ezagutu genuen lehenengo anarkista espropiatzailea izan zen. Or-duan, erromantizismo apur bat gera-tzen zen gure arima xaloetan. Bizitza-ren eskarmentuak, berriz, erakutsi digu gehienetan errealitatea ipuinen ifrentzua dela, eta benetako munduan gehien daukana izan ohi dela gutxien daukanez baliatzen dena. Alderantziz-

ko ipuinean, gainera, pribilegiatuak, ezkutuan ez, egun argitan eta begi bis-tan lapurtzen dio behartsuari.

Adibideak ugariak dira baina azken asteko aldrebesko Robin Hood horieta-ko bat ekarri nahi dut lerrootara: Cris-tina Uriarte. Hezkuntza sailburuak ira-garri du azken egunotan bere kordako hedabideetan aurten 27,5 milioi euro gehiago, 608,7 orotara, bideratuko di-tuela diru-kutxa publikotik itunpeko ikastetxeen sarera. Lehenengo eskola egun hauetan patioetara osteratxo bat egitera joatea besterik ez dago batzuen eta besteen errealitatea zein den au-rrez aurre ikusteko. Ikusleari begien

aurrean agertuko zaion errealitate hori urteetako hezkuntza politika bazter-tzailearen emaitza da. Baliabide eko-nomiko urriko jendea baliabide urriko sare publikoan kontzentratzea izan da planifikatutako estrategia; pribilegia-tuak gizarte maila apalekoekin, etorki-nekin edota behar bereziak dituztene-kin nahas ez daitezen. Batzuk oihanean eta besteak orbanik gabeko lorategian. Sortuko ahal dira Sherwoo-deko baso horietatik Robin Hooden al-derantzizko ipuinari buelta emango dioten etorkizuneko anarkista espro-piatzaileak. Bitartean, nork bere bizio-ak ordain ditzala. •




EXPRAI

iRRITZIA:



ETENGABEAN
SAIATZEN ZARETE...
ETA EZ AL DUZUE
ORAINDIK IKASI
EZ DAGOELA
ELKARTASUNA
GILTZAPETZERIK?



#47ak Herrian xPM 2019

LUPULU USAINEKO UDA AMAIERAK



Iñaki Sanz-Azkue


Gordexolako Ibarra baserrian duela berrogeita hamar urte pasatxo ateratako argazkiak dira ondokoak. Gutxien esperotakoan tiradera baten ilunetatik azaldutako altxorra. Bertan ageri dira baserritarrak garagardoa egiteko erabiltzen den lupulu sail baten erdian. Artean argazkitan kontatu ez den istorio bat janztera datoz irudiok zalantzarik gabe.

Gutxien espero duzunean azaltzen dira altxorrak bizitzan. Bila deza-kezu artxibo handienetan, edota Internet orojakilean. Jo dezakezu Madrilgo artxiboetara eskean, edota adituengana, eta ez duzu aurkituko. Eta bat-batean, guztia ezinezkotzat ematen duzunean, lagunen arteko elkarrizketa batean gaia atera, eta ordu gutxira bidaltzen dizute horrenbeste desio zenuen hori. Eta Bizkaiko etxe batean, argazki zaharren artean ahazturik zeuden irudi eder batzuekin egiten duzu topo pantaila aurrean. Horrenbeste buelta eman ostean, ia nahigabean iritsi zaizu eskuetara altxorra argazki itxuran.

Floren Elorduy Torrontegi mungiarrek 1966-67 urte inguruan atera zituen argazkiez ari naiz. Kamerak sei eta zortzi metro arteko luzerako makilen artean harrapatu zuen bere koinatua: Jose Maria Otaola Arechaederra, Gordexolako Ibarra baserrikoa. Arba luzeen txikitasunean, momentu berezi, eta era berean, eder batean geldiarazi zuen denbora: garagardoa egiteko erabiltzen den lupulu landarearen (*Humulus lupulus*) lorea usaintzen zegoenean. Baina, zer egiten zuen bizkaitar batek (garai haietan) garagardoa egiteko landare artean?

GARAGARDOA EUSKAL HERRIAN?

XX. mendearen hasieran gero eta ugariagoak ziren garagardoa egiteko fabrikak Euskal Herrian. Juan y Teodoro Kutz (Donostia), La Cervecera del Norte (Bilbo), La Salve (Bilbo), La Vizcaina (Bilbo) eta Cervezas Knorr (Gasteiz) ziren, esaterako, Hego Euskal Herriko ezagunenak. Horien jabeetariko asko alemanak ziren, eta euren herritik ekartzen zuten garagardoa egiteko behar zuten lupulu lorea. Galizia inguruan emaitza onak eman zituen lupulua aldatzeko saiakeraren bat edo beste egin zen arren, eta Bizkaian bertan 1930erako probaren bat egin bazen ere, fabrikek Alemania eta Austriatik jarraitu zuten ekartzen landarea, are eta gertakizun berezi bat gertatu zen arte: II. Mundu Gerra lehertu zen.



1944an, II. Mundu Gerraren ondorioz, Alemaniatic ez zen lupulurik iristen jada, eta Espainiako Nekazaritza Ministerioak dekretua atera zuen 1945ean lupulu landaketei buruzko legeak jarritz. Garagardo fabrikek, kanpotik lupulurik ez zetorrela ikusita, “Sociedad Anónima Española de Fomento del Lúpulo” sortu zuten, eta Espainiako lupulu landaketen kudeaketaz arduratu ziren, Espainiako Gobernuaren begiradapean betiere. Euskal Herriko garagardo fabrikak tartean zirelarik, bertako garagardo fabrikak hornituko zituzten lupulu sailak hasi ziren azaltzen gure baratzeetan. 1950erako, dagoeneko, 20.000 lupulu landare zeuden 225 nekazariren ardurapean. Bizkaian, Araba iparraldean eta Nafarroako Goizueta herrian eta Baztan, Arakil eta Iruñeko bailaretan ezarri ziren. Gipuzkoako hogeitaherritarare ere iritsi ziren landaketak: Hondarribian, Oiartzunen, Astigarragan, Hernanin, Usurbilen, Orion, Gabirian, Mutiloan, Azpeitian, Mutrikun, Oñatin...

Alboko orrialdean, Jose Maria Otaola lupulu lorea usaintzen eta ondoan Rosa Gonzalez Arana koinata. Lerro hauen gainean, Gordexolako Ibarako lautadan zeukatzen lupulu sailaren tamaina ikus daiteke.
FLOREN ELORDUY TORRONTEGI

Euskal Herriko landaketek, ordea, 20 bat urte baino ez zituzten iraun. Gerraren amaieraren ondorioz, lupulu lorearen prezioen jaitsierarengatik eta egin behar zen lan gogorra zela eta, 70eko hamarkadan ia landare sail guztiak desagertuak ziren dagoeneko.

Irudietan agertzen den lupulu saila ere orduan kendu zuten, 1972an. Bilboko La Cervecera del Norte kudeatzailerak zen Gandariasbeitia jaunak bultzatuta landatu zituzten Maria Angeles Gonzalez Aranak eta Jose Maria Otaolak lupuluak Gordexolan, 1964an, eta zaindu ere euren egiten zuten. 500 metro karratuetan 120 landare izatera iritsi ziren, eta jabeen hitzetan euren inguruan ez zuten beste lupulu sailik ezagutu. Izan ere, ez zen nolanahikoa egin behar izaten zen lana.

LOREA ZEGOKION GARAIA BILDU BEHARRA

Garagardoa egiteko lupulu landarearen lore emea erabiltzen da, eta horixe bera jasotzen zuten baserritarrek uda amaieran. Guraizeekin edo eskuz, base-

rriaren arabera ezberdin biltzen ziren loreak. Askotan familiako lana izaten zen. Gutxitan, Hernaniko Antonino Pagola zenaren lurretan gertatzen zen moduan, herriko emakumeak eta umeak izaten ziren uda amaieran, txanpon batzuen truke, eguraldi onarekin lupulua jasotzera Urumeako erriberara joaten zirenak.

Lorea zegokion garaian bildu behar zen, ez lehenago, ez beranduago. Izan ere, horrek ziurtatuko zuen lupulina, garagardoa egiteko erabiltzen dena, bere punturik onenean egotea. Hori dela eta, baserritar askori erakutsi egin behar izan zitzaion zein zen lorea biltzeko momentu egokia, urte osoko uzta galtzeko arriskua baitzegoen bestela.

Hilabeteak lore preziatua noiz helduko zain egon ostean, lorearen koloreak eta usainak esango zion baserritarrari jasotzeko ordua zen ala ez. Eta une erabakigarri horretan, ez lehenago, ez beranduago, hilezkortu zuen Florennek bere koinatu Jose Maria: uda amaierako lupulu lorearen usainetan murgildurik.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Ikasturtea



Iritsi da iraila eta martxan jarri da gure errutinaren mekanika olioztatua. Iñigo URIZ | FOKU

Haur musugorri bat negarrez ikusi dut eskola bateko atarian. Debaldeko biolentziaren, morboz zipriztindutako albisteen eta hesteak ere erakusten dituzten telesailen garaiotan ez dago haur baten negarra baino gertakari bihotz-erdiragarriagorik. Segundoero gertatzen da, arnasa hartzea bezain ohikoa da haur batek negar egitea. Eta, hala ere, barruan zerbait pitzatu dit motxila gorria aldamenean zuela lurrean eserita eta belaunen kontra kuzkurtuta antsika ari zen haur musugorriaren eszena dramatikoak. Irakaslea behar zuen heldu batek hurbildu eta eskutik helduta eskola barrura eraman du malkoak masailetan zintzilik zeuzkan haur desesperatua.

Iritsi da iraila etaerloju suitzar, finlandiar edo auskalonongotar baten zehaztasunez abian jarri da gure errutinaren mekanika olioztatua. Normaltasunari ihesi bizi garen erretiratu, gaueko langile eta ordutegietatik kanpoko biztanleak geratu gara hondartza bazter abandonatuen zaindari. Garoa gorritzen ari da ehiztarien eta usoen zain dauden mendi inguruetan. Klaseak bete di-

tuzte ikasle eta irakasleek. Aurten garraio publikoa gehiago erabiliko genuela agindu arren, izara artean luzatutako minutuek autoa hartzera behartu gaituzten asko semaforo eta biribilguneen arteko kale okupatuetan pilatu gara. Lugaritzeko trenek botaka egiten dute eta motxila, maleta eta poltsaz kargatutako oinezkoak mugikorrrari begira prozesioan doaz aurrera, itsu-itsuan, hanketako giharrek aurreko ikasturtetik memoriaz ikasitako bideetan barrena.

Lagun batek esan dit ez dagoela irakasleena baino lan gogorragorik. Begirada harritu bat bota diot, inguruko askok baieztapen horren kontra emandako argudioak gogoan. Latza izan behar duela bota dit,

errukituta, «irailean bereziki». Nire bekain jasoek bere teoria azaltzen jarraitzera gonbidatu dute. Latza behar omen du ikasturtea joan eta ikasturtea etorri, norbera urtebete zahartu, urtebete erre eta urtebete ajatu arren parean dauzkanek urtero adin bera izateak. Adin bera, eta antzeko galderak. Eta nik erantzunik izan ez.

Egunkari bila jo dut kioskora. Hondartza-garaitik bueltan, berriz ere gizenduta datoz iraileko albisteak. Alardea Hondarribian, Diada Katalunian eta sarraskia Mediterraneon. Makroepaiketa Madrilen. Irakasleen iraileko sindromea sentitu dut: norbera urtebete zahartu, urtebete erre eta urtebete ajatu arren, parean daukanak berdin dirauenaren neke hori. Memeen, gif-en eta emotikonoen garaiotan badirudi hitzek ez dutela pisurik, denak direla tonu berean irakurtzekoak harridura ikurrik ondoan ez badaramate. Larridura ikurak asmatu beharko ditugu akaso, erabiltzearen erabiltzez maiztutako kontzeptuak seinalatzeke. Badira beste hitz batzuk, orde, paperean abstraktu diruditen arren buztinari bezala forma eman behar zaienak. Klean eta egunerokoan. “Elkartasuna” eta “maitasuna” adibidez. Gaur Bilbon izango da aukera. •

{ datorrena } Itzea Urkizu Arsuaga

Irri-arrako bat

U da hasieran txukunketa ofizial horietako bat egin zuen amak, behin batez nire logela izandakoan; irri-arrako bat eman, berak esaten duen moduan. Laguntza eskatu zidan, bota behar ziren eta ez ziren objektuei nire epaia emateko, eta, horrek nagikeria ikaragarria sortu bazidan ere, bigarren minuturako denboran bidaiatzen ari nintzen.

Atera ziren dantzako alpargata zaharrak, elastiko aldarrikatzaile mordoa eta batxilergoko zenbait liburu. Game Boy pocket gorri bat ere bai, eta lehen aldiz begiratu nion jostailuaren gaineko *boy* hitzari. Atera ziren autoeskolako testak, eta parrandetan erabili-eta-botatzeko-kamerarekin egindako argazkiak, paperean. Eta atera zen koaderno txiki bat ere.

Inoiz aitortu izan dut nire paperfilia. Uste dut, liburutxo fisikoek baino gehiago, orri zuriek erakarri izan nautela, paperak esan nahi diogun guztia entzuten baitigu. Eta, nire gaurko lotsarako, nerabezaro garaian orriak eta orriak izan nituen entzule fin. Azal horia eta lodia zuen koadernoak, eta Berri Txarraken letra zati txiki bat boligrafoz gogor idatzi nion antza. Barruan, malenkonia, maitemintzea, euforia, zalantzak eta tristura, lerroz lerro trukatzuten. Eta ni, hura irakurriz, noizbait izan nintzena ukatzen. Bi aldiz pentsatu gabe, orri batzuk irakurri, eta bota beharreko objektuen taldean sartu nuen koadernoak.

Egun gutxiko kontua izan zen, koadernoak zaborrontzira bota izanagatik damua sentitzearena. Ia-ia oximoron bat baita, aspaldi guk geuk egin-pentsatu-esan-idatzitakoek gaitzespena sortzea; hori izan

ginen, hortik erori ginen hiru aldiz, eta hortik ikasi genuen, edo horretan ari gara. Hortik heldu gara hona, gaur beste koaderno honetan idaztera.

KOADERNO HUTS ETA BOLIGRAFO BETEEN GARAIA

Zer da ba iraila, ezpada koaderno huts eta boligrafo beteen urte-garaia? Iraila berriz jaiotzeko hilabetea dela saldu izan digute; lotsarazten gaituzten koadernoetatik harro sentiarazten gaituztenetara pasatzeko aukera. Dena hasi, dena berri, dena zerotik. Hala balitz.

Hala balitz, noizbait, irailen batean, iragana litza-teke herri bateko jaietan emakumeei parte hartzea ukatu, eta baztertze hori instituzionalki babestea. Ez ginateke lasai biziko, arazoak gainditzea hautsa alfonbra azpian sartzea dela pentsatuta; edo, sine-tsita, neutraltasuna izan daitekeela bizi-estilo eta justizia sozialaren sinonimo. Eta, kasu horretan, akaso, pentsatuko genuke botoa kutxan sartzearen garrantzian, eta oposiziora bidaliko genituzke irailako “bizikidetza arazoa” martxoan prediku morez janzten duten pertsona-politikari guztiak. Behar bada, horrela, haiek ere lotsagorrituko lirateke urtetan idazten ari diren koadernoak irakurrita. Baina, balego eta balitz...

Hori guztia hala balitz, ez nuke lerrootan aitortu beharko, esfortzu bat egin dudala, nire lehen koaderno honetan Hondarribia ez aipatzeko; bistan da, esfortzu merke samarra izan dela. Ez nuen alardea hizpidera ekarri nahi, honezkero nahikoa hitz eta hausnarketa eman dituelako; eta, aldi berean, arrazoi horrexegatik jarri nahi nion fokua irailaren 9ko hitzorduari. Inoiz ez delako nahikoa izango. Ez aspaldian, eta ez oraindik. •

Ez ginateke lasai biziko, arazoak gainditzea hautsa alfonbra azpian sartzea dela pentsatuta; edo, sinetsita, neutraltasuna izan daitekeela bizi-estilo eta justizia sozialaren sinonimo

I. MENDI FESTA BELAGUAN

Iñaki Otxoa de Olza SOS Himalaiak Makaluko ospitalearen berri emango du

Iñaki Otxoa de Olza SOS Himalaia Fundazioak bere hamargarren urteurrena dela-eta, irailaren 27tik 29ra bitarteko asteburuan I. Mendi Festa egingo du Belaguan. Jardueraz betetako egitaraua prestatu dute, nahi duenak parte hartzeko modukoak.

Duela 11 urte hil zen mendizale nafarraren omenez sortu zen gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako mendi festan, Makaluko ibarrean eraiki duten ospitalearen proiektua aurkeztuko dute. Era beran, ospitalearen finantzazioa bultzatzeko ere baliatuko dute topagune hori, besteak beste zozketa baten bidez. SOS Himalaia elkarteko kideekin batera parte hartuko dutenen artean alpinismoarekin lotutako izenak daude, hala nola Horia Colibasanu, Annapurnako ertzean Iñakirekin ia azken hatsa eman arte egon zen mendizale errumaniarra, edo Iker Madoz mendizale nafarra, film bat eta hitzaldi bat eskainiko dituen.

Makaluko ospitalerako laguntza ekonomikoa lortzeko, gutun bat idatzi zuen Pablo Otxoa de Olzak. Idatzi horretan, bere anaia Iñakiren heriotza gogoratzen du. Duela 11 urte «Iñaki Annapurnan geratu zen betiko», dio Pablok. «Eskalatzaile handi bat joan zitzai-gun, baina batez ere gizaki handi bat». Ez dira hitz hutsak, gutunean aurkezten duen proiektua Iñakiren proiektua baita, haren ametsa. Izan ere, mendizale nafarrak eskola bat, ospitale bat eta ume-zurtz etxe bat eraiki nahi zituen Nepal. Haren hitzez esanda: «Himalaiako jendeak niri eman zidan guztia herrialde hartakoei itzuli» nahi zien. Eta neurri han-

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Askotariko jarduerak izango dira Belaguan irailaren 27tik 29ra arteko asteburuan, Iñaki Otxoa de Olza mendizalearen omenez sortu zen SOS Himalaia Fundazioaren hamargarren urteurrena dela-eta. Besteak beste, Makaluko ibarreko bizilagunen osasun-beharrak asetzeko eraiki duten ospitalearen berri emango dute.

Seduwako ospitalea, Makaluko ibarrean.
SOS Himalaia



dian amets hura gauzatze bidean da gaur egun.

SOS HIMALAIA

Iñaki Otxoa de Olza mendizale iruindarra 2008ko maiatzaren 19n hil zen hain maite zuen inguruan: Annapurnako ertz batean, gailurretik gertu, bertan bost egun eman ondoren. Hau xe idatzi zuen GARAn Amaia U. Lasagabasterrek bere kronikan: «Himalaiara joaten diren gizon-emakumeak joaten ez direnen berdinak dira -zioen Otxoa de Olzak berak bere liburu batean-. Edozein bezain onak eta txarrak, egoistak eta altruistak, edozein bezain motibatuak eta gogaituak'. Etxera itzuli ahal izan balitz, Otxoa de Olzak berridatzi egin beharko zuen hori, bere kideek emandako elkartasun etsenplua ikusita». Izan ere, ahalegin ikargarria egin zuten lagun haiek Iñaki menditik bizirik jaisteko. Eta esandako hura berridatzi egin beharko zuen bere proiektua aurrera doala ikusita.

2009an mendizale nafarren familiak eta senideek Iñaki Otxoa de Olza SOS Himalaia elkartearen sortu zuten. Ordutik ekimen asko egin dituzte Nepal, hango eskolentzako laguntza emanez, 2015eko lurrikararen ondorengo berreraiketa lanean, etxebizitzetan... eta iaz Makaluko ibarreko bizilagunen- tzako ospitale bat atontzeko proiektuari ekin zioten. Horretan dabiltza orain buru-belarri.

PROIEKTUA

Makaluko ibarreko Seduwan dago ospitalea. Herri horrek 16.000 bizilagun ditu errolaren arabera, baina errolatu gabeko 2.000 haur ere bizi dira bertan. Osasun zentro bat dagoen hurbileneko herria Num da, eta hara iristeko egun oso bat eman beharra dago oinez.

Bestela, kasu larrietan helikoptero bidez atera behar dira gaxorik daudenak. Seduwako ospitalean jendetzari arreta emateko asmoa dute, beraz; izan ere, herri horretatik gertu Tanggay Village dago, erroldatutako 12.000 biztanle eta erroldatu gabeko beste 1.000 dituen herria. Bi herrion artean bi orduko bidea dago, baina Nepalgo Gobernuak zubi bat eraikitzen duenean, ordubetean iritsi ahal izango da batetik bestera. Hartara, gutxienez 30.000 lagunentzako zerbitzua emango du elkarteak bulztatutako ospitaleak.

Elena Sagaseta SOS Himalaiako koordinatzaileak Makaluko proiektuaren gaineko azken berriak eman dizkigu. Abuztuan proiektuan laguntzen duen Amunt Nepal talde kataluniarreko boluntarioak bertan izan dira. Besteak beste, dioenez, farmazia berri bat egin dute bertan. Hil honetan bertan, berriz, ur-araztegi bat jarriko dute ospitalean.

Pablo Otxoa de Olza Iñakiren anaia eta SOS Himalaiako presidenteak, berriz, ospitalearen proiektua nola sortu zen kontatu dio GAUR8ri: «Guk ospitalearen hormigoizko egitura topatu genuen, duela zenbait urte abandonatutakoa, Nepalgo Gobernuak kontratatu zuen eraikitzaileak porrot egin baitzuen. Kartzelan sartu zuten. Gobernuak milioi bat euroko aurrekontua jarri zuen ospitale hura eraikitzeko eta dirua gastatu egin zuen. Guk 100.000 euroekin amaitu genuen eraikina. Hango biztanleek proiektuarekin bat egitea lortu genuen. Bizilagunek diruaren parte bat aurreratu zuten, ondoren Gobernuak itzuli ziena; guk ere beste parte bat aurreratu genuen, Nepalgo Gobernuak horren parte bat



Amunt Nepal taldeko boluntario kataluniarrek, besteak beste, formakuntza ere eskaini zieten ospitaleko langileei.
SOS Himalaia

itzultzeko konpromisoa hartuta. Ospitalea bukatu zen, biztanleek beren dirua berreskuratu zuten, guk ere parte txiki bat berreskuratu dugu eta oso pozik gaude. Hango jendeak lan asko egin du...».

Inguru hartan topatzen dituzten patologiarik ohikoenak tabakismoaren eta alkoholismoaren ondorio dira, hango biztanleriari nabarmen eragiten dioten arazo handiak. Halaber, tuberkulosia, gibelesko gaixotasunak, bihotzeko patologiak, disenteria, gastroenteri-

tisa, begi-lausoak eta hortzeta-ko arazo ugari antzeman dizkiete han bizi diren lagunei. Dagoeneko hango biztanleriaren parte handi baten historia klinikoa egin dute, eta, informazio horren arabera, material mediku eta botika beharrezkoenak zein diren ikusi ahal izango dute.

BELAGUAKO I. MENDI FESTA

Irailaren 27an, ostiralarekin, 19:00etan hasiko da mendi festa Izabako Oroitzapenaren Etxean, argazki erakusketa ba-

tekin. Ondoren Iñaki Madoz eskalatzaileak film bat eta so-lasaldi bat eskainiko ditu.

Larunbat goizean Erronkari-ko Pirinioak taldeak antolatutako mendi martxa; gastronomia, artisautza eta mendi azoka, eta elkartasun erronka izango dira. Arratsaldean, Arroitu Indarra fanfarreak Izabako kaleak alaituko ditu; zinema aretoan, "Iñakiren ahotza" filma emango dute, eta ondoren, mendizale iruindarra ezagutu zuten zenbait mendizale ezagunek mahai-inguru batean parte hartuko dute.

Igandeko jarduerak Iñaki Otxoa de Olza Mendi Martxa-rekin hasiko dira; eguerdian herri bazkaria egin eta zozketako sariak banatuko dituzte, eta, bazkalondoan, Makaluko ospitalearen proiektua aurkeztuko dute.

Ospakizun handia, zer ospatua badute eta.

Iñaki Otxoa de Olzaren omenez sortu zen gobernu kanpoko erakundeak antolatutako mendi festan Makaluko ibarrean atondu duen ospitalearen proiektua aurkeztuko dute

Ekimen asko egin dituzte, Nepalgo eskoletan, 2015eko lurrikararen ondorengo berreraiketa lanetan, etxebizitzetan... eta iaz Makaluko ospitalea atontzeko proiektuari ekin zioten

PABLO OTXOA DE OLZA

SOS HIMALAIA FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

Buru-belarri dabil Pablo Otxoa de Olza Belaguako I. Mendi Festa-ren antolaketan, buru-belarri bere anaia Iñakiren omenez sortu zuten SOS Himalaia Fundazioaren proiektuetan. Ostegunean Makaluko ibarrera abiatu zen, ur-araztegi bat eramateko, bertan egin duten ospitalean edateko ura izan dezaten. Bezperan, GAUR8rekin hitz egin zuen.

Belaguan zerbait ospatuko duzue, mendi festa denez gero.

Ospakizuna da, bai. Ekitaldia inguratzen duten xehetasunak eta ñabardurak alde batera utzita, alde batetik Fundazioaren hamar urteak ospatu nahi ditugu, hamar urteotan egin dugun lana. Izan ere, egia esateko, ez da gutxi; baliabide gutxiarekin eta apaltasun handiarekin, funtsean jendearen indarrarekin aritu gara, behaztopatuz eta zutituz. Beste alde batetik, elkartzea ere bada gure helburua, hainbat bazkide, kolaboratzaile eta laguni mendi inguru horretan elkarrekin egoteko aukera ematea, mendia baita gure zereginaren jatorria eta batzen gaituena. Azkenik, zalan-tzarik gabe, gure lana hedatu nahi dugu. Horrelako proiektuak ezagutzen diren neurrian mugitzen da jendea, eta gure ezohiko gobernuz kanpoko erakundeak ez duela bulego handirik, ez dugula soldatarik jasotzen, lortzen dugun diru guztia Nepal aldera doala ikusten duenean, hurbildu eta lagundu egiten du.

Iñakiren familiak eta lagunek sortu zenuten elkartea, eta zu oso konprometituta zaude harekin. Proiektuak aurrera ateratzen ikusteak gogobetetasun handia emango dizu, noski.

Fundazioaren presidentea naiz, eta jo eta su aritzen naiz, [elkar-

«Sortu dudana enpresa txikiaz ez nago harro. Nepalen egin dugunaz nago harro»



«Hamar urteotan egin dugun lana, egia esateko, ez da gutxi. Baliabide gutxiarekin eta apaltasun handiarekin, funtsean jendearen indarrarekin aritu gara, behaztopatuz eta zutituz»

teko kide] Elena, Laura, Ming-marekin... eta beste batzuekin batera. Ez naiz gauzak egiten dituen bakarra; beraz, ez duzu protagonismoa nigan jarri behar. Harro? Bai, oso harro nago. Askotan pentsatzen dut ziur naizela ohe batean kontziente hiltzen banaiz, behar zuen jendearentzat egin ditugun 13 eskolak, 289 etxebizitzak eta ospitalea gogoan izango ditudala. Behar zuen jendearentzat diot, zeren batzuetan oinetako berri

batzuk behar ditugula esaten dugunean, egiatan oinetakoak erosi nahi ditugu, eta behar izatea beste gauza bat da. Nik ez dut adreilu bakar bat ere jarri, diru pixka bat jarri dut, eta lan asko, ordu asko, gau asko. Orain badago laguntzen digun jende dezente. Hiltzen naizen egunean neure bizitzan egin dudana errepasatzeko aukera badut, nire seme-alabez eta honetaz harro sentituko naiz. Nik enpresa txiki bat sortu dut,

baina horretaz ez nago harro. Horrek jaten ematen dit eta ki-to. Honetaz nago harro ni.

Iñakiren amets gauzatua da.

Bai, Iñakiren ametsa herri haietatik jaso zuena itzultzea zen. “Itzuli” aditza erabiltzen zuen berak. Asmo hori zuen, baina gauzatu gabe hil zen. Orduan, geuk egingo genuela pentsatu genuen. Horretan hasi ginen eta atzera-buel-tarik gabeko bidea da. Lañotasun handiarekin, inkontzientzia pixka batekin sartu ginen, baina honaino ekarri gaitu bide horrek. Iñakiren gogoan hurrei laguntzea zegoen, baina gero ikusi genuen, esate baterako, ospitale batetik helduei ere laguntzen diela, eta, heldurik ez badago, haurrak hil egiten direla. Oso oinarritzko gauzak dira, altuerako mendizalearen filosofiarekin oso bat datozenak: ibili ezean, jan ezean, hil egingo zara. Zerbait egiten ez baduzu, jende hori hil egingo da.

Mendia eta elkartasuna lotu egiten dira maiz.

Ez da kasualitatea. Begira, Jorge Egocheaga alpinista asturiarrak ez du fundaziorik, baina liburu bat idatzi, editatu eta saldu du, eta jaso duen diru guztia beka batzuk sortzeko erabili du, guk lan egiten dugun inguru berean, Makaluko ibarrean, haurrak eskolatzeko, han gehien-gehienek ez baitute horretarako baliabiderik. Eta haur horien ehuneko handi bat oso ona da ikasketetan. Eburne Pasaban itzal handiko tolosarra beste kasu bikain bat da. Fundazio bat du, guk harekin kolaboratu izan dugu eta bera gure ospakizun honekin ere laguntzen ari zaigu. Alex Txikon, bidegabekeria baten aurrean bi aldiz pentsatu gabe inplikutzen da. Inurrategi anaiak, Pou

anaiak, Denis Urubko... ez da kasualitatea.

Mendizalea solidarioa da maiz jendeak bizirauteko gorriak ikusten dituen lekuetan egiten duela-ko bere jarduera profesionala; mendiak eskalatzeko baliabide garrantzitsuak erabiltzen dituzte eta pentsatzen dute hori nolabait konpondu beharra dagoela. Konpontzeko modua da beren jarduera profesionalarekin batera jarduera solidario hori egitea. Eta pentsatzen dute hori egingo ez balute, bihozgabeak izango lirartekeela. Osasun arloko jendea ere oso solidarioa da.

Hala ere, zuen elkartean eta zuen kolaboratzaileen artean denetatik dago.

Nire anaiaren erreskate ahalegi-na kontatzen duen “Pura Vida” filmak “Campobase” aldizkarian Iñakik idazten zuen zutabetik hartu zuen izenburua. Aldizkari hori beste elkartasun eredu bat da. Guk hamar urteotan doako publizitatea izan dugu bertan. Izan ere, mendizaleak eta erizainak eta medikuak ez dira solidario bakarrik. Gure elkartean denetatik dago, bai, Nafarroan, Euskal Herrian eta leku guztietan. Beharbada beste herri batzuetan ez hainbeste, baina hemen bai, gure izaerarekin bat dator, eta izaera hori oso ondo dago. 2010ean, biolinak egiten dituen lagun bat topatu genuen, Fernando Solar. Elkartearen aldeko ongintzazko kontzertu bat antolatu zezakeela esan zigun, 82 musikarirekin, inondik ezagutzen ez genuen lagun batek! Horrelako jendearekin mugitu izan gara. Horrela egin dugu egin duguna. Funtsean, jende askoren esfortzuak batu eta bultzatu ditugu, han, Nepalen, ahalik eta eragin zuzenena izan dezaten.

Ospitalea 30.000 lagunentzako zerbitzua da.



Argazkiak: SOS Himalaia

«Iñakiren ametsa herri haietatik jaso zuena itzultzea zen. 'Itzuli' aditza erabiltzen zuen berak»



Zaila da kopurua zehaztea, has-teko, ez baitago errolda osorik; biztanleak oso sakabanatuta daude. Populazio mota garai bateko Euskal Herrikoaren antzekoa da, baserri antzekoak dira, baina askoz apalagoak, eta mendian oso barreiatuak. Baina inguru hartako leku batean zubi bat eginez gero, ez zaude oker, kopuru hori izan liteke, bai.

Guk hura topatu genuenean beharra benetakoa zela ikusi genuen, inolako arreta medikurik jasotzen ez zuten herri-tar ugari zeudela, inoiz mediku bat ikusi gabe jaio, bizi eta hiltzen zen jendea, eta, gure proiektu motarekin bat ez ba-

zeturren ere, gure proiektuak askoz apalagoak baitziren, ondo pentsatzea merezi zuela ikusi genuen. Jakina, bestelakoa litzateke Katmanduko erakitzaille bat joan eta diru publikoa tartean dela ikusita, bere negozioa egitea. Umiltasunez egin dugu, euro bakoitzarekin, errupia bakoitzarekin, zer egingen den hurbiletik jarraituta. Eta oso ondo atera da.

Laster hara joatekoa zara, ezta?

Bai, etzi, ur-araztegia muntatze-ra, 400 kiloko tramankulua da, eta helikopteroz eraman beharra dago, ez baitago errepiderik. Neurri handian pertsona batek

eman duen diruarekin erosi dugu. 18.000 euro balio duen trastea da, e? Eta hara bidaltzea beste mila eta koska. Gasteizko mediku batek, izenik ezin dizut esan, erdia baino gehiago jarri zuen. Bestetik, Kordoban bada 3.000 biztanle inguruko herri bat, elkarre bat oso solidarioa, Carcabuey elkarre, eta ezkerre-ko gobernua duena. Herri horretako jendeak dirua biltzeari ekin zion eta lortu zuenarekin eta medikuak emandakoarekin erosi dugu ur-araztegia. Harri-garria da: nola iristen zaigu laguntza existitzen denik ere ez dakigun Kordobako herrixka batetik? Edo nola herentzia bat edo dena delakoa jaso duen euskal mediku batek ematen digu haren parte bat? Horren aurrean, guk ezin gardenagoak eta prestuagoak izan beharra daukagu, Iñakiren antzera.

Haren espirituak gidatzen du elkarre...

Bai, jakina. Guk haren arrastoari jarraitzen diogula diogu. Ni ez naiz haren laurdenik ere, baina ikasi dugu, eta bidea argi daukagu. Dagoeneko ospitalea abian da, emakumeak erditzera joaten dira, laster ur garbia izango dugu, abuztuan bederatzi boluntario kataluniar izan dira eta euste-horma bat eraiki dute haurrak aldapetatik eror ez daitezen, eta leher egiteko moduan lan egin dute, ospitalerako osasun-pauta asko ezarri dituzte, baita erregistroak ondo eramateko ere...

Besterik?

Jendea anima dadila I. Mendi Festara etortzen, proiektuarekin solidarioa izan dadin, munduko laguntza guztia behar dugu-eta. Nahi duenak gure web orria ere bisita dezake: www.soshimalaya.org.

Xabier Izaga Gonzalez

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*

SARE@N

naiz+



> Joseba Arguiñanok Euskal Herria aipatu zuen eta...

Karlos Arguiñano sukaldari ezagunak Antena 3en egiten duen programaren denboraldi berrirako fitxaketa bat aurkeztu zuen: bere seme Joseba, gozogle lanak egingo dituenena. Semea ezagutarazteko, Susana Grisok telebista kate horretako “Espejo Público” programan elkarrizketatu zituen aita-semeak. Aurkezleak Josebari sukaldea nola ulertzen duen galdetu zionean, Arguiñano




no gazteak esan zuen xumetasunaren aldekoa dela, naturaltasunez eta «hemen, Euskal Herrian, elikatzeko mahaian egon behar duten betiko osagaiak» erabiliz egina. «Euskal Herria». Bi hitz eta horrenbesteko esanahia. Bi hitz eta hainbeste fatxa asaldatuta. Batzuek ez dute denborarik galdu sare sozialetan mota guztietako gozokeriak idazteko: «Etarren lagun baten semea izateagatik»...

> Ultrak, Maria Chiviteren Twitterreko mezuen aurka

Nafarroako lehendakari Maria Chivitek Twitter kontu berria zabaldu zuen joan den astean, eta haren agurra ikusita, irainka hasi zitzaizkion, «ETA eta haren jarraitzaileak zuri-tzea» leporatuta. Chiviteren @mavichina kontutua @MariaChivite_na ofizialak ordeztu zuen. Twitterreko erabiltzaile askok ez zuten txaloz hartu presidentearen ongie-torri mezua. Lehenengo maiseoak Uxue Barkos nahiago zuten erabiltzaileenak izan ziren, eta



pixkana unionista buruberoak ere hasi ziren parte hartzen. Batzuek Navarra Sumaren ideietatik hurbileneko txiolarien inguruetan sortutako mezuak jaurti dizkiote. Ondoren, mezuak berotu egin dira. Izan ere, giroa ere bero samar dago “El Mundo”-k bere lehen orrialdean PSNk bere burua EH Bilduri saldu eta Polizia eta Guardia Zibila babesik gabe utzi dituela esan ondoren. Laburbilduta, irain ugari eta graziazirik batere ez.



> Historia lezioa Espainiako Itzulian

Carlos de Andres RTVEko esata-riak historia lezio bat eskaini zuen aurtengo Vueltan Amaiurtik iragan zenean. Baztango herria «Nafarroaren kon-kistaren aurkako azken erresis-tentzia gunea» izan zela esan zuen Donapaleutik Dantxari-nerainoko etaparen emankizun-ean: «Amaiur, 1522an Nafarro-ako independentziaren alde



Gaztelako Armadaren aurka borrokatu ziren haien lurral-dea. Amaiur, Nafarroaren kon-kistaren eta Gaztelako Koroan sartzearen aurkako azken erre-sistentzia gunea. Defendatzai-leen oroipen monolitoa». Ikusle batek telebistako iru-diak eta De Andresen hitzak jaso eta Twitterren bidez argi-taratu zituen.

«OVERSHARING»

Sei hilabetez azpiko haurtxoen %81ek presentzia daukate sare sozialetan

JENDARTEA / GAUR8

Jaio aurretik haurren %23ek presentzia daukate sare sozialetan, gurasoek ekografiak jartzen dituztelako. Beren bizitzetako lehen sei hilabeteetan %81ek daukate presentzia, eta, koskortu ahala, gora egiten du ehunekoak. Adituek «oversharing» edo «sharenting» bezala izendatu dute joera eta, xaloa begitandu arren, ertz arriskutsuak izan ditzake.

Dagoeneko ize-na jarri diote: *oversharing* edo *sharenting* esaten zaio gurasoek sare sozialetan egiten duten haurtxoen gehiegizko esposizioari. Instagramen eta Facebooken gertatzen da nagusiki eta modu inuzentean zintzilikatutako irudiek espero gabeko bide ilunagoa egin dezake-te. Horixe adituek eman duten abisua.

Segurtasun informatikoaren alorrean lan egiten duen AVG enpresak galdeketa bat egin du hamar herrialdetan, tartean Estatu espainola. Inkestak jaso duenez, haurren %23k sare sozialetan presentzia daukate dagoeneko jaio aurretik, haurdunaldian zehar gurasoek ekografiak argitaratzen dituztelako. Haurtxoen lehen sei hilabeteetan izugarri hazten da ehuneko hori, %81era iritsi arte. Eta haurraren lehen urteetan presentzia hori areagotzen joaten da.

Nominet konpainiak Erresuma Batuan egindako ikerketa baten arabera, gurasoek urtean batez beste bost urtetik beharako seme-alaben 200 bat argazki zintzilikatzen dituzte sare sozialetan. Horrek esan nahi du bost urte betetzerako haur horien mila bat argazki

egon daitezkeela sarean. Errepertorioa askotarikoa da; lo gozoan dauden haurtxoak, bainua hartzen gustura daudenak, pixontzi berrian eserita daudenak, parkean jolasean dabiltzanak edota gurasoen begietara zoragarriak gertatzen diren beste hamaika egoera jasotzen dituzten irudiak. Arazoa da irudi horiek zoragarriak izatetik arriskutsuak izatera pasa daitezkeela gurasoek uste baino aiseago.

EDUKIEN KONTROLA GALDU

Webgune batera, blog batera edota sare sozialetara igotzen den edozein edukiren gaineko kontrola galdu egiten da hori argitaratu orduko.

Silvia Martinez UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko Social Mediako masterraren arduraduna da. Bere hitzetan, «pentsatzekoa da gurasoak direla beren seme-alaben irudia babesteko interes handiena dutenak eta haien ongizatea denaren gainetik zainduko dutenak. Horregatik, irudi bat zintzilikatu aurretik, adin txikikoen interesak eta eskubideak gailendu behar dira beste edozein interesen gainetik. Baina gurasoek seme-alaben argazkiak partekatzen dituztenean sare sozialetan –bereziki adin txikikoak baldin badira–, akaso ez dira horrek dakartzan

Adituek ohartarazi dutenez, haurtxoak sare sozialetan modu xaloenean erakutsi arren, ondorioak aldrebesagoak izan daitezke.
GAUR8





arriskuen jakitun». Martinezen hitzetan, «maiz gurasoek pentsatzen dute irudi horiek beren inguruko lagunen artean baino ez direla zabalduko, baina askoz urrutirago irits daitezke». Adituaren arabera, gehienek profil publikoa dute eta edonork ikus ditzake irudi horiek. «Hala ere, nahiz eta gurasoek profil pribatuak erabili irudi horiek zintzilikatzeko, askotan ezagunak edo senideak dira gero argazki horiek zabaltzen dituztenak –askotan, gainera, gurasoen baimena izan gabe–. Beraz, profil pribatuan zintzilikatu arren, nahi baino urrutirago irits daiteke argazkia».

Sare sozialek berek araututakoaren arabera, plataforma teknologikoetan zerbait argitaratzen dugunean, informazio horren gaineko erabilera eta eskubide batzuk enpresa horien esku uzten ditugu. Adibidez, Facebookek zehazten duenez, «Facebooken eta Face-

bookeko gainontzeko produktuetan –Instagram horietako bat da– sortzen eta partekatzen dituzun edukiak zure jabetzakoak dira eta ezerk ez ditu baliogabetzen horien gainean dituzun eskubideak». Baina irakurtzen segituz gero, laster agertzen dira ñabardurak. «Facebooken argazki bat partekatzen duzunean, hori jasotzeko, kopiatzeko eta partekatzeko baimena ematen diguzu. Eduki hori edozein momentutan ezabatu dezakezu zure kontutik baimen hori bertan behera uzteko. Hala ere, ezabatutako eduki hori ikusteko moduan egon daiteke beste pertsona batzuekin partekatu baldin baduzu eta horiek ez badute borratu».

DATU GEHIEGI EMATEA

Adin txikikoen irudiak sare sozialetan zintzilikatzeak baditu beste arrisku hainbat. Esaterako, haur pornografiarako erabilia izan daiteke argaz-

ki hori mundu mailan. Horretarako, biluzik agertzen diren argazkietatik haurren genitalen irudiak eskura ditzakete eta nahieran erabili.

Komunikazio digitalean eta sare sozialetan aditua den UOCo Martinezek beste abisu bat ere ematen du: «Haurren inguruko edukiak partekatzeak, beren garapenaren berri zehatza emateak, gustatzen zaizkien gauzak aipatzeak, bisitatzen dituzten tokiak erakusteak edo, are, oso intimoak diren guneak erakusteak –be-

Adituek ohartarazi dutenez, «maiz gurasoek pentsatzen dute irudiak beren inguruko lagunen artean baino ez direla zabalduko, baina askoz urrutirago irits daitezke»

«Gurasoen %56k beren seme-alabak lotsarazi ditzaketen edukiak partekatzen dituzte, %51k haurrak lokalizatzeko moduko datuak eta %27k desagokiak diren irudiak»

ren logelak kasu–, arrisku handiagoak ekar ditzakete. Datu horiek guztiek informazio asko eskaintzen dute eta delituak egiteko asmoz edo adin txikiko horien kontra egiteko asmoz erabili ditzake norbaitek».

Horrez gain, seme-alaben haurtzaroa plataforma digitalean kontatzean eta zabaltzean haien lehen aztarna digitalak inprimatzen ari garela dio Martinezek. «Argazki horiek argitara ematean, identitate digital bat sortzen ari gara eta akaso protagonista, adin txikiko hori, ez da gustura sentitzen identitate horrekin. Areago, lotsatuta ere senti daiteke informazio hain pertsonala publiko egiterakoan».

Bide horretan, Martinezek nabarmendutako ikerketa baten arabera, «gurasoen %56k beren seme-alabak lotsarazi ditzaketen edukiak partekatzen dituzte plataforma digitalean, %51k haurrak lokalizatzeko moduko datuak eskaintzen dituzte eta %27k desagokiak diren irudiak zintzilikatzen dituzte».

Ondorioak uste baino larriagoak izan daitezkeela nabarmendu du adituak. «Jazarpena sufritu dezake edo irudi horiek modu okerrean erabili ditzakete beste batzuek. Horrek bere autoestimuan, izen onean eta harreman sozialetan eragin dezake».

Hartara, sare sozialetara irudiak zintzilikatzerakoan protagonistaren baimena eta oniritzia beharrezkoak direla dio Martinezek. «Arau hori gurasoei ere aplikatu behar zaie. Nahiz eta seme-alaben zaintza eta tutoretza beren eskuetan egon, adin txikikoaren iritzia aintzat beharko lukete bere aztarna digitala osatzeko orduan».



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexuarekiko jendartearen jarrerak

Heziketa munduan badakigu mezu berbala bezain garrantzitsua dela zein jarrera dugun. Eta inportanteena ez da kontatzen duguna, hezten ditugun pertsonen gurekin kontatu dezaketela jakinaraztea baizik. Sexuaren gaiarekin gauza bera gertatzen da. Hortaz, norbanako bakoitzaren jarrera eta gaiaren aurrean erreakzionatzeko era, sexuaz dakiguna baino garrantzitsuagoa da. Hots, sexuaren inguruan aditua izan beharrean, sexuari buruz jarduteko prestutasuna naturaltasunez adieraztean datza. Zu zeu zaren bezala adieraziz eta esaten eta egiten duzunarekin eroso sentituz.

na, hezten ditugun pertsonen gurekin kontatu dezaketela jakinaraztea baizik. Sexuaren gaiarekin gauza bera gertatzen da. Hortaz, norbanako bakoitzaren jarrera eta gaiaren aurrean erreakzionatzeko era, sexuaz dakiguna baino garrantzitsuagoa da. Hots, sexuaren inguruan aditua izan beharrean, sexuari buruz jarduteko prestutasuna naturaltasunez adieraztean datza. Zu zeu zaren bezala adieraziz eta esaten eta egiten duzunarekin eroso sentituz.

Sexualitatea etengabe bizi eta erakitzen goazen giza dimentsioa da.

Beraz, sexuarekiko ditugun jarrera sozialak eta emozionalak, kultura, heziketa eta biografiaren produktu dira. Horiek erabat ulertzeko, sexualitatea garatzen den testuingurua kontuan izatea beharrezkoa da. Euskal herritarren kasuan, tradizio judutar-kristauan oinarrituta eraiki da. Joserra Landarroitajauregi sexologoaren hitzetan, «gizakiaren existentzia sakrifizioaren ikuspegitik ulertzen da, eta sufrimendua eta plazerari uko egitea bezalako balioak sustatu dira». Ondorioz, sexualitatea erregulazio moralean eta tradizio sexofoboan oinarrituta eratu da. Hala ere, gure gizartean, sexuarekiko hiru jarrera sozial nagusitu dira.

Batetik, debeku jarrera. Horren us-tetan, sexualitatea zerbait lotsagarria da, eta, batzuetan, beldurra eta gaitzespena eragiten ditu. Etiketa eta arau sozial zurrunik erabiltzen ditu eta sexua praktika erotikoa batera murrizten du. Hau da, sexua prebenitu

beharreko arrisku bat da. Bestetik, jarrera permisiboa dugu. Hemen aldaketa bakarra da debekuen permisibitatean oinarritzen dela eta askapena eta aldarrikapena bilatzen dituela. Jokabide arauak ondorengo ideiak baldintzatuta egongo dira: «Orain dena onartu beharra dago». Ostera, errepresioarekin eta erruduntasunarekin identifikatzen da. Azkenik, kultibo jarrera nagusitu da. Horri dagokionez, pertsona guztiak sexudunak gara eta sexualitatea oinarritzko dimentsio bat da. Giza Izate Sexuala ezagutzea eta ulertzea da garrantzitsuena. Laburtuz, sexua kultibatu beharreko balore bat da, hain zuzen.

Sexuarekiko jarrera emozionalei dagokionez, sexualitatea, gure biografian zehar nola barneratu dugun kontuan hartu behar da. Sexualitatearen inguruan ideia positiboak edo negatiboak garatu ditugun, alegia. Ondorioz, sexu estimuluen aurrean

jarrera positibo edo negatiboa izaten dugun ala ez. Horri erotofilia-erotofobia dimentsioa deritzogu. Sexuarekiko jarrera emozional positiboari erotofilia izena eman zaio, eta, negatiboari, erotofobia. Pertsona kontserbadoreak ez dira zertan erotoboak izan behar, ezta liberalak erotofilikoak ere.

Funtsean, erotofiliak, onura gehiago izan ditzake.

Sexu informazio edo zerbitzuetara hurbiltzeko erraztasun handiagoa. Era berean, estimulu edo egoeren aurrean erantzun asertiboa eta eraginkorragoa emateko aukera. Goatzeko gai izango garela sentitzea. Baita harreman positiboagoak osatzeko ere. Azken finean, autoestimu sexualaren garapen egokiarekin lotuta dagoen dimentsioa da. Eta erotofilia sustatzen eta bermatzen duen jarrera soziala kultibo jarrera da. Beraz, txertatu dezagun sexu hizkuntza gizarte hezkuntzan. •



Sexua kultibatu beharreko balore bat da.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERMAN ELORZA. EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

IZEN UGARIKO PLAZA 1930EKO HAMARKADAKO BILBON

Bilboko Laguntzaileen Plazak II. Karlistaldian (1872-1876) karlisten setioan hiria defenditu zuten Laguntzaile Konpainien oroitzapenari zor dio. Institutuko Plaza txikia zenari izen hori ipintzeko proposamena El Sitio elkarteak egin zuen 1925ean, Primo de Riveraren diktaduran. 1937an Nafarroako Brigadak izena eman zioten, Bilbo hartu zuten Armada frankistako unitateen omenez. Gaur egun Miguel Unamuno Plaza da. Argazkia joan den mendeko 30eko hamarkadan egindakoa da eta bertan azoka txiki bat ageri da, egun Erriberako Merkaturatua den Plaza Zaharrekoaren ordezkia eta bertan zegoen Institutua eraitsi ondoren geratu zen lekuan egunero ipintzen zutena. Eskaileretan gora Begoñara igotzen zen, eta eskuinaldean den eraikina Lezamako trenbide zaharrarena zen. Egund Arkeologia Museoa dago bertan. Argazkiaren egilea German Elorza izan zen (Gasteiz, 1910 - Bilbo, 1983). 1932an hasi zen argazkigintza profesionalaren munduan, gurasoekin Bilbora aldatu zenean. Han, On Diego Lopez de Haroko kale nagusiko Casa Lux-en lanean hasi zen Manuel Torcidaren eskutik. Luze gabe, bere kabuz jarraitu zuen bere lanbidean eta berriemaita hasi zen Prensa Gráfica taldeko egunkarientzat, hala nola tokiko zenbait kazetarentzat. Haren trebezia eta begirada fotografikoagatik kontratatu zuten Bilboko "La Tarde" egunkarian, eta, frankistak Bilbora sartu ondoren, "Hierro" arratsaldeko egunkari falangistan. 1974an Athletice eta Gijongo Sportingen arteko partidu batean lanean ari zela izan zuen istripuak argazki-kazetaritza uztera behartu zuen. Haren argazki funtsa Euskadiko Artxibo Historikoan dago.



GAUR8 ireki gure leihoa

